

JARDUEREN
TXOSTENA

2018



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Jarduera handiko urtea

Aurreko ekitaldian buru-belarri aritu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea. Esku hartzen dugun alor guztietan egin genuen lan, eta memoria honek hala egiaztatzen du xehe-xehe. Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren kontsulta-entitatea den aldetik, 2018. urtean jarduera zorrotz eta zabal batekin aritu ginen Eusko Jaurlaritzak balorazio bateratua egiteko eskatu zigun proiektu guztiei erantzuna emateko. Hori horrela, Batzordeak, guztira, hamasei irizpen eman zituen legeen aurreproiektuei eta dekretu-proiektuei buruz, bai eta dagoeneko existitzen diren batzuen aldaketa-proiektuei buruz ere. Lan zehatz eta zorrotza egin zen esparru horretan, bereziki, urteko lehenengo sei hilekoan, kontsulta-errekerimendu gehienak bildu baitziren. Ohi bezala, askotariko gaiak jorratu ziren baloratzeko eskatu zizkiguten proiektuetan; alabaina, beti izan dute zerikusia ekonomia- eta gizarte-politikekin, horiexek baitira Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eskumen-arloak. Askotariko gaiak jorratu dira, besteak beste: urtarrilean irizpena eman genion lehenengo testua, ama-esnerako banku bat sortzekoa, eta iazko urriaren amaierakoa, fundazioen araudiari buruzkoa. Bien bitartean, honako hauek ere landu ziren: adinekoentzako egoitzei buruzko dekretu-proiektua; horietan dauden farmaziak eta sendagaien gordailuak; etxebizitza partikularrak turismorako erabiltzea; eraikinen ikuskapen

teknikoa arautzea; langilerik gabeko gasolindegia; familia-harrera; Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Plana; ikuskizun publikoen araudia; adingabe atzerritarrak behin-behienean EAEra lekualdatzea; aurreko dekretuak aldatzeko proiektuak, hala nola seme-alabak kargura dituzten familiei laguntzeko dirulaguntzei buruzkoa edo gizarte-larrialdirako dirulaguntzari buruzkoa; hilaren osasunari buruzko araudia; eta kooperatibei eta enplegu publikoari buruzko legearen aurreproiektuak. Zenbatu egin ditut Jarduereen Memoria irakurtzen duenak ikus dezan askotariko gaiak landu ditzaketela EGABen ordezkaturata dauden ekonomia- eta gizarte-eragileek, betiere, erakundeko teknikarien laguntzaz.

Hala eta guztiz ere, EGABen zereginen barruan beste lan asko daude aldiari irizpenak emateaz gain.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Esaterako, europako eremuan egiten dugu lan. Urteak aurrera joan ahala, gero eta gehiago jarduten dugu Europako kooperazioan. Guztiontzat interesgarriak diren gaien inguruko lankidetzalanak egiten ditugu Europako eskualdeetako, Akitania Berriko CESER eta beste ekonomia- eta gizarte-batzorde batzuekin. Atlantikoko Nazioz Gaindiko Sarea zuzentzen dugu orain, eta gure erreferentziako foroa da. Iaz, Atlantikoko Ekintza Plana sakon aztertu, eta ekarpen garrantzitsuak egin genituen Atlantikoko Nazioz Gaindiko Saretik, planaren erdiko ebaluazioa aprobeztatuz. Ekarpen horien bitartez, Atlantikoko eskualdeetako ekonomia- zein gizarte-kontseiluena eta pareko erakundeena iritzi bateratua helarazi genien Europako autoritateei.

Hauxe da 2018. urtean nabarmendu beharreko beste gai bat: "EAEko gazteriaren enplegarritasuna eta europar eskualdean alderatuta lan-merkatuan sartzea" ekimen propioa azterlana amaitu eta publikoki aurkeztu da. Martxoan aurkeztu genuen azterlana, eta lana aztertu zuten gizarte- eta ekonomia-eragileek egindako eztabaidan erdietsitako ondorioak gehitu ziren. Gainera, premiazko behar bat azpimarratu genuen: "herrialde-itun bat" lortzea, oinarri hartuta inplikaturik dauden eragile guztien adostasuna eta erantzunkidetasuna, gazteen eta, oro har, euskal biztanleen enplegarritasuna hobetzeko asmoz.

Sarrera amaitu aurretik, urtero aurkezten dugun eta gogo handiz itxaroten duten gure Memoria Sozioekonomikoaren garrantzia nabarmendu nahi dut. Argitalpenak, halaber, oihartzun handia izaten du urtero. Gure Memoria Sozioekonomikoan aldagai sozioekonomikoak bilatzen dira, eta baloratu eta Batzordean ordezkatzeko diren gizarte-eragileen gogoetak gehitzen dira. Aurten, ekitaldi publiko batean aurkeztuko ditugu gogoetak. Bertan, Daniel Innerarity hizlariak gobernantza jasangarriaren inguruko hitzaldi bat eskainiko ditu. Hitzaldi interesgarria izango da, non filosofoak arrazoizko hausnarketak helaraziko dizkigun, gaur egungo gizarteak nolabaiteko ikuspegia behar duten etorkizuneko gaiak jorrazteko duen gaitasun ezari eta epe laburrerako joerari buruz. Eta horixe da, hain zuzen ere, ekonomia- eta gizarte-batzordeetatik egin dezakegun ekarpena, erakunde honetan uste dugunaren arabera.

Francisco José Huidobro Burgos

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Presidentea



ZIHURTAGIRIA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegiaren 16 b) artikuluan ezarri denez, besteak beste Jardueren Urteko Memoria onesteko eginkizuna du eratzikita osoko bilkurak.

Arautegian ezarritakoa betez, 2016ko ekitaldiari dagokion Jardueren Memoria egin da eta, hortaz, hauxe

ZIHURTATZEN DUT

Lehenik, Euskadiko eta Ekonomia Gizarte Arazoetarako Batzordearen osoko bilkurak, 2018eko otsailaren 16ko ohiko batzarrean, hau erabaki zuela, besteak beste:

“Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako 2018ko Jardueren Memoria onestea ”

Bigarrenik, Batzordearen osoko bilkurak aipaturiko erabakian onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik dakar argitalpen honek.

Eta ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut Bilbon, 2018eko otsailaren 22an.

Emilia Málaga Pérez

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Idazkari Nagusia

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I. KAPITULUA ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen Historia	6
Euskadiko EGAB. Sorrera eta Izaera	6
Eginkizunak	7
Eraketa	8
Osoko Bilkuraren Osaera	9
Organo kokegiatuak	10
Batzordearen araubide Ekonomiko-finantzarioa eta Bitartekoak	11

II. KAPITULUA JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

Batzordearen lege aurautzailean aurrez ikusitako funtzioak erabiltzea	29
Aurreko urteetako kontsulta-jardueraren eragina jarraitzea	31
2017an eaeko ekonomia eta gizarte egoerari buruzko memoria	30
Azterlanak eta Txostenak egitea	34
<i>“EAEko gazteriaren enplegarritasuna eta lan-merkatuan sartzea Europako eskualdeen arteko ikuspegi konparatuaren arabera”</i>	
<i>EUROPAR KOOPERAZIOAREN EREMUAN EGINDAKO TXOSTENAK</i>	
Organo elkargokideen bilerak	40
Batzorde egutegia	51
Jendaurreko ekitaldiak eta jardunaldiak	52

III. KAPITULUA JARDUERA INSTITUZIONALA

Kontsulta-jarduerarekin zerikusia duen erakunde-jarduera eta aurkezpen-ekitaldiak	55
Europar gaien eremuan erakunde-jarduera	62

IV. KAPITULUA BITARTEKO MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

2018KO Aurrekontua	65
Batzordearen Zerbitzurako Langileak	66

V. KAPITULUA KOMUNIKAZIOAK ETA ARGITALPENAK

Komunikazioa	67
Argitalpenak	68

ERANSKINA. Euskadiko EGABren Ararudioa

69

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I. KAPITULUA ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA

EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEN HISTORIA

Egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen aurrekariak lehen mundu gerraren amaieraren ondoko urteetan aurkitu behar ditugu. 1919an, Lanaren Nazioarteko Bureau delakoa sortu zen nazioarteko batzar gisa, eta bertan hartzen zuten parte gobernuek, langileek eta enpresaburuek, lan-baldintzak hobetzeko nazioarteko legeria elkarrekin egiteko.

Harrezkero, ituntzeko lehen tresnak agertu ziren Europan, egungo ekonomia eta gizarte batzordeen aurrekariak. Lehen erakundea 1925ean sortu zen Frantzian, eta geroago antzeko beste batzuk agertu ziren Europako beste herrialde batzuetan, bereziki II. Mundu Gerra bukatutakoan.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak sortu zuen, bere organo nabarmenen artean, Ekonomia eta Gizarte Batzorde bat. Izaera eta zereginei dagokienez, guztietan bateragarritasun azpimarragarria dago: kontsultarako organoak dira, eta gizarte eta ekonomiako hainbat interesetako ordezkariak gobernuen politika ekonomikoan parte hartzea ahalbidetzeko helburua dute. Aldi berean, interesen arteko elkarrizketa eta lankidetzak ahalbidetzen dute.

Halaber, Batzordeak ez du jokabide pasiborik, baizik eta gobernuek eta parlamentuek kontuan izan behar dituzten proposamenak edo ebazpenak planteatzeko euren ekimena dute. Aholkuak emateko organoa den aldetik, autonomia eta independentea da gobernutik eta parlamentutik, eta haren txostenak lotesleak ez badira ere, aginduzkoa dira kasu askotan. Edozein kasutan, aintzat hartu beharreko iritzi kualifikatua ematen du.

EUSKADIKO EGAB. SORRERA ETA IZAERA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea da, eta ekonomia eta gizarte interesek Euskal Herriko politika ekonomikoan eta sozialean parte hartzea du xede.

4/1984 Legearen bidez sortu zen, eta haren arauak hainbat lege aldaketa izan dituzte. Egun, hauetan ezarritakoak eraentzen du EGAB: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legean, urriaren 29ko 433/2013 Dekretuan eta 2013ko azaroaren 22ko osoko bilkuraren erabakiak onetsitako bere Funtzionamendu Arautegian



Batzordeak nortasun juridiko propioa du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarena ez bezalakoa, eta ahalmen eta independentzia osoa du legeak eratziki dizkion eginkizunak betetzeko.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen egoitza Bilbon dago, eta bertan egiten dira bere organoen bilkurak.

EGINKIZUNAK

- Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Batzordeari atxikitako arloak alde batera utzita, hura arautzen duen legearen arabera. Aurretzako azterlan horretatik daude salbuetsita Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren lege proiektuak, baita berau aldatzeko edo osatzeko legegintzako arauak ere. Hala ere, edukiaren berri eman behar dio Eusko Jaurlaritzak Batzordeari .
- Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Batzordeari atxikitako arloak alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzaren ustez garrantzi berezikoak badira. Proiektu horretatik daude salbuetsita aurreko ekitaldietan onetsitakoen jarraipena dakarten dekretu proiektuak edo berrikuntza edo aldaketa nabarmenak ez dakartenak ere. Aurrekoa gorabehera, Eusko Jaurlaritzak, aukeran, txostenak eska diezaioke.
- Aginduzko informazioa ematea Eusko Jaurlaritzak hartutako beste edozein administrazio ebazpenen inguruan, politika ekonomiko eta sozialarekin lotuta badaude eta Laneko Harremanen Batzordeari bere lege arau-emailan dagozkion arloak alde batera utzita, betiere Eusko Jaurlaritzaren ustez garrantzi berezikoak badira.
- Informazioa ematea aginduz Eusko Jaurlaritzak politika ekonomiko eta sozialaren arloan dituen plan orokorrei buruz.
- Aurreko ataletan aipaturiko arloei buruzko proposamenak egitea Eusko Jaurlaritzari.
- Bere ekimenaz edo Eusko Jaurlaritzak edo Legebiltzarrak eskatuta irizpenak, ebazpenak edo txostenak egitea, aurreko a) eta b) ataletan aipaturiko arloei dagozkienak.
- Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jarduera ekonomikoei buruz eginiko plangintzan parte hartzea.
- Urtero memoria bat egitea eta Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren irizpenpean jartzea, non Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoari eta sozialari buruzko bere gogoetak azalduko diren.
- Bere eginkizunak betetzeko behar duen informazioa eskatzea eta jasotzea administrazio orokorretik eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein erakundetatik.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

ERAKETA

Hogeita hamabi lagunek osatzen dute Batzordea. Hauexekin:

- Zortzi kontseilari, sindikatuen erakunde eta konfederazio nagusien ordezkarietan.
- Zortzi pertsona, enpresa konfederazioen ordezkarietan.
- Pertsona bat ondorengo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate edo elkarten ordezkarietan :
 1. Merkataritza, industria eta nabigazio kamerak.
 2. Aurrezki kutxak eta finantza erakundeak.
 3. Kooperatibak.
 4. Laneko sozietate anonimoak.
 5. Arrantza erakundeak.
 6. Nekazaritza erakundeak.
 7. Kontsumitzaileen erakundeak.
 8. Gizarte ekintzaren hirugarren sektoreko erakundeak.
- Zortzi pertsona, Batzordearen zereginekin zerikusia duten arloetan adituak.

Batzordeak burutza du. Arestian izendatutako pertsonaren bat ez bada, kideen kopurua hogeita hamahirukoa izango da. Lau urterako izendatzen dira.



OSOKO BILKURAREN OSAERA

TITULARRAK

ORDEZKOAK

A TALDEA

Sindikatu en erakunde eta konfederazioen ordezkarietan

CCOO

UGT

TITULARRAK

Garbiñe Espejo Jairo
Felisa Piedra Gao
Oskar Arenas Velasco
Arantza Martínez Tobalina
Santiago Martínez Pérez

ORDEZKOAK

Gregorio Martín Benito
Jorge Hurtado Abrisqueta
Estibaliz Montero Mendoza
Jone Robledo Zapatero
Alfonso Ríos Velada

TITULARRAK

Maribel Ballesteros Martínez
Esperanza Morales Quicios
Raúl Arza Vélez

ORDEZKOAK

Jesús M^a García de Cos
Arantza Ruiz Huidobro
Carlos Trevilla Acebo

B TALDEA

Enpresa Konfederazioen ordezkarietan

Pablo Martín Goitia
Aitor Otaola Díez de Alda
Nerea Zamácola Gárate
Adolfo Rey Gómez
Fco. Javier Sasigain Sáez de Buruaga
Gonzalo Salcedo Bilbao
Yoana Arambalza Zalbidea
Virginia Múgica Conde

Silvia Ara Quincoces
Juan Ugarte Aguirrezabal
José Miguel Ayerza Mendiburu
Luis Bernaola Iturbe
Ana Boto Sánchez
Ana García Polanco
Fernando Raposo Bande
Eduardo Arechaga Cilleruelo

C TALDEA

EAEko sektore, erakunde edo elkarte bakoitzaren izenean

Merkataritza, Industria eta Nabigazioa

Juan Luis Martínez Ordorica Izaskun Astondoa Sarria
(Hasta el 17/06/2018)

Kooperatibak

Patxi Olabarria Furundarena Francisco Javier Sanz Santaolalla

Arrantza Erakundeak

Miren Garmendia Ceberio Juan Pablo Rodríguez-Sahagún
González

Gizarte Ekintzako Erakundeak

Mikel Larrea Azpeitia Ana Collia Posada

Aurrezki Kutxak eta Finantza Erakundeak

Pedro Martínez de Alegría Pinedo Rafael Aranguren Ilardia

Laneko Sozietate Anonimoak

Javier Muñecas Herreras Olatz Jaureguizar Ugarte

Nekazaritza Erakundeak

Iñigo Bilbao Rekaorri Yolanda Urarte Alonso

Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko Erakundeak

Mikel Ruiz Martínez Gonzalo Rodríguez Aguirregoitia

TALDEA D

Aditu Izendaturiko pertsonak

Inmaculada Gallastegui Zulaica
Pedro Luis Ustarroz Molerés
Edurne Terradillos Ormaetxea
Guillermo Dorronsoro Artabe
Lander Beloki Mendizabal
Lore Bilbao Artetxe
Jon Barrutia Güenaga
Carmen Agoués Mendizabal

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

ÓRGANO KOLEGIATUAK

OSOKO BILKURA

Osoko bilkura, Presidentearen zuzendaritzapean, erabakiak hartu eta bere borondateaz agertzeko Batzordeak duen organo gorena da. Kontseilarietz gain, presidentek osatzen du. Gainera, idazkari nagusia batu behar zaie. Osoko bilkurak ondorengo aginpideak ditu:

- Presidente kargua bete behar duen pertsona proposatzea Lehendakariari eta, Osoko Bilkuraren erabakirik egon ezean, kargua bete behar duen pertsonari buruzko kontsulta jasotzea Lehendakariaren aldetik.
- Batzordeari esleituriko funtzioak betetzean egokiak diren erabakiak hartzea.
- Funtzionamenduari buruzko barne arautegia egin eta onartzea, baita Batzordearen funtzionamendurako arautegia gara dadin beharrezkoak diren gidalerroak eta argibideak onartzea ere.
- Lan batzordeak sortzea eta kentzea, haien eskumenak eta funtzionamendu arautegia zehaztea.
- Batzordearen aurrekontua onestea.
- Batzordearen langileak onestea aurrekontuan sartzeko.
- Bateriaezintasunak aztertzea eta Batzordeko edozein kideren betebeharrak bete ez direla adieraztea.

Batzorde Iraunkorra

Funtzionamenduari buruzko Arautegiak sortu ostean, Batzorde Iraunkorra Batzordearen gobernu organo arrunta da. Batzordeburuak, Idazkariak eta Batzordea osatzen duten talde bakoitzeko lau pertsonak osatzen dute. Funtzioen artean honakoa nabarmen daiteke: Batzordearen osoko bilkuraren erabakiak betetzen direla zaintzea.

Lan Batzordeak

Osoko bilkuraren eginkizuna da lan batzordeak sortzea eta horiei aginpideak esleitzea.

Lan batzorde egonkorak ondorengoak dira:

- **Gizarte Garapenerako Batzordea:** buru Pedro Luis Ustarroz Moleres da.
- **Ekonomia Garapenerako Batzordea:** buru Pedro Martínez de Alegría Pinedo da.
- **Memoria Sozioekonomikorako Batzordea:** buru Inmaculada Gallastegui Zulaica da.
- **Europako Gaietarako Batzordea:** buru Felisa Piedra Gao da.
- Era berean, Batzordeak “EAEko gazteriaren enplegarritasuna eta lan-merkatuan sartzea Europako eskualdeen arteko ikuspegi konparatuaren arabera” **azterlanaren Batzordea** izan da eta batzordeburu Jon Barrutia Güenaga izendatu zen.

Pertsona bakarreko Organoak

Batzordeak pertsona bakarreko bi organo ditu, presidentetza eta idazkaritza nagusia.

PRESIDENTETZA

Batzordearen ordezkari du, saioetarako deialdiak egin, buru izan eta horiek moderatzeaz gain. Gaur egun kargu hori Francisco José Huidobro Burgos jaunaren esku dago.

IDAZKARITZA NAGUSIA

Batzordearen zerbitzu administratiboak nahiz teknikoak zuzentzen ditu eta ez da batzordekidetzat jotzen. Gaur egun kargua Emilia Málaga Pérez andreak betetzen du.

Autonomia ekonomiko finantzarioaren printzipioa betez, bere aurrekontua onetsi eta betearazten du Batzordeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako zenbatekoarekin finantzatzen da.

Batzordeak zortzi langile ditu eta lege arautzailearekin bat, Lan Zuzenbidearen arabekoak dira,

Batzordeak, kontratatzeko orduan, sektore publikoaren kontratuen arloan indarreko legeria bete behar du, herri administrazioetat jotzen den erakundea baita.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

II. KAPITULUA JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

BATZORDEAREN LEGE AURAUTZAILEAN AURREZ IKUSITAKO FUNTZIOAK ERABILTZEA

IRIZPENAK EGITEA:

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordeari buruzko Legeak 3. artikuluan xedatutakoarekin bat, 2018. urtean Batzordeak hamasei irizpen egin zituen: bat VII. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planari buruz, bi lege proiektuen inguruan eta gainerako hamahiruak dekretu-proiektuei zegoekienez.

1/18 IRIZPENA “Ama-esnearen Euskadiko Bankua sortzen duen eta norberaren semeak/alabak erabiltze eta emate aldera hori hartu, atera, prozesatu, banatu eta administratzeko baldintzak ezartzen dituen Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Gizarte Garapeneko Batzordea

Sarrera-data: 2017ko abenduak 21

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordeak egokitzen du “Euskadiko giza esnearen bankua sortu eta beren seme-alabekin eta dohaintzan eman dadin lortu, atera, prozesatu, banatu eta administratzeko baldintzak xedatzen dituen dekretu-proiektua” izapidetzea. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aurkeztu zuen eta irizpena 2018ko urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran onartu zen.

Dekretu-proiektuak giza esnea dohaintzan ematearekin zerikusia duen arau-esparrua xedatzen du: dohaintzan ematea, ateratzea, ebaluatzea, prozesatzea, babestea, gordetzea, banatzea eta erregistratzea. Honako printzipioei jarraiki burutu da: borondatezko dohaintza

altruista, emailaren eta hartzaileen anonimotasuna, medikuak agindu ostean eskusiboko banatzea eta osasun-berme osoak izatea. Horretarako, Euskadin dohaintzan emandako giza esnearen bankua sortu du eta kalitate nahiz segurtasunaren inguruko arauak xedatu ditu.

Euskadiko EGABk arau honen aukera eta beharra partekatzen ditu. Aurrekoaren harira, positiboki balioztatzen du, are gehiago, bankua jada sortua dagoela kontuan hartzen bada. Osakidetzaren esku uzten du esne-bankua kudeatzea eta hori funtsezkoa da merkaturatze-jardunak ez izateko. Dena den, aurrekontu-aurreikuspenak nahikoa ez direla egiaztatu ohartarazten du, beraz, araua aplikatzea arriskuan egon liteke.

Nahiz eta arauak bankuaren funtzionamendua zerbitzu publiko bezala arautu eta amagandiko edoskitzea sustatu nahi dituen, irizpenaren esanetan, bigarren alderdiak dekretuaren artikuluetan edukirik ez du eta arloan ekintza zehatzak garatzea edo xede horrez beste arau bat egitea eskatzen du. Azkenik, bularreko haurrek ama biologikoarengandik elikagai nahikoa jasotzen ez badute, EGABk esne-bankuaren onuradunen artean sartzea du helburu. Horrez gain, eranskin batean zehaztu beharko lirarteke patologiak, jaiotako haurrek ama-esnearen dohaintzak lor ditzaten.

1/18 Irizpena jarraitzea: 2018ko urriaren 16an Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, Osasun Sailak proposatu ostean, Euskadiko giza esnearen bankua sortu eta beren seme-alabek erabili eta dohaintzan eman dadin amaren esnea lortu, atera, prozesatu, banatu eta administratzeko baldintzak xedatzen dituen dekretua onartu zuen. Dena den, aldeztatik Batzordeak irizpena burutu zuen eta urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuraren saioan onartu zen.

Onartutako testuak aldaketa gutxi izan ditu eta, ondorioz, ez dute edukiaren funtsa aldatu.

2/18 IRIZPENA, “Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzen farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Sarrera-data: 2018ko urtarrilak 25.

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da “Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuak dauden adinduentzako egoitzetan farmaziaren eta sendagai-gordetegiaren zerbitzuei buruzko dekretu-proiektua” izapidetzea. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aurkeztu zuen eta 2018ko otsailaren 16ko Osoko Bilkuran onartu zen haren irizpena.

2/18 Irizpena jarraitzea: txosten hau egin den datan arau hau onartzeke dago.

Arauaren xedea 11/1994 Legea araubidez garatzea da. Horretarako, adinduentzako egoitzek farmazia-zerbitzuak edo sendagaien gordetegiak izan ditzaten baldintzak finkatzen ditu eta, aldi berean, gizarte-laguntzako zentroetan, hala nola, adinduentzako egoitzetan farmazia-arretari buruzko estatuko arautegia kontuan hartzen du.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak pozik hartu du araudi-proiektu hori, derrigorrezkoa zein beharrezkoa baita ia hogeita bost urte Euskadiko Ordenazio Farmazeutikorako Legea argitaratu zenetik, garatzeke geratu zen araudia benetan prestatzeko, baita estatu mailako legedia garatzeko ere (16/1012 Lege Dekretua, Osasun-sistema nazionalari eusteko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko urgentziatzko neurriei buruzkoa).

Zentro soziosanitarioetan sendagaiak banatzeko zerbitzuari buruzko araudirik garatu ez izanaren ondorioz, urte hauetan guztietan ezin izan da Ordenazio Farmazeutikorako Legeak gai horren inguruan aurreikusitakoa martxan jarri, ez eta farmazia-arretarik egin ere Legeak ezarritako figuren bitartez, hots, ospitaleko farmazia eta sendagai-biltegien bitartez. Harik ezean, adinekoentzako egoitzetan hainbat jarduketa egin dira arreta farmazeutikoa eskaintzeko ahaleginetan, baina zehapen-espedienteak ekarri dituzte lehiaren euskal agintaritzen aldetik. Horregatik, kontuan izanik espedienteen garrantzia eta hartutako konpromisoen irmotasuna, Batzordearentzat deigarria da dekretuaren hitzaurrean dekretu-proiektuaren aurrekari horren esanguratsua ez aipatzea, bai eta sektoreko eragileei modu zuzenean edo azpikontratazioen bitartez arreta farmazeutikoko zerbitzua bermatzeko konpromisoak beteko direla berariaz ez jasotzea ere.

Arau-proiektuari erantsitako memoria ekonomikoak Batzordearen balioztapen positiboak merezi du, argi eta garbi nahiz zehatz-mehatz aztertzen baititu dekretuak ezarri nahi duen erregulazioari atxikitako kostuak. Hala eta guztiz ere, Batzordeak azaldutakoaren arabera, dekretu-proiektuak adinduentzako egoitzetan egituratzen duen farmazia-zerbitzuen kudeaketa-eredua kontuan hartuta, aukera desberdinen konbinaketa hautatzean, agertoki desberdinak eratzen dira eta ekonomikoki zenbatetsi beharko lirateke. Memoria ekonomikoa, berriz, eskusiboki agertoki batean oinarritzen da, hain zuzen, sendagaien gordetegiaren formula onartzean eta berezko farmazia-zerbitzuaren aukera ez du aztertzen. Gainera, baloratu dituen kontzeptuak, batik bat, Osakidetzaren ikuspuntutik gehitu dira, eta ez titulartasun pribatuko zentro baten ikuspuntutik. Halaber, gastu-sorta bati analisisian ez zaio erreparatu eta zenbait ratiok argudio sakonagoak eskatzen ditu.

Azkenik, zailtasunen gaiari eutsiz, egoitza batzuek, nagusiki txikienek, batetik, beharrezko guneak izan eta gaitzeko eta, bestetik, dekretu berriaren eskakizunetara moldatzeari begira, lokal, instalazio eta horniduren inbertsio ekonomikoei aurre egiteko eragozpenak izan ditzakete. Beraz, Batzordeak Eusko Jaurlaritzak partida ekonomikoa gaitzearen aukera iradoki du eta helburua esperimendatzen duten egoitzek laguntzaren bat izatea litzateke.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

3/18 IRIZPENA, “Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko adinekoentzako egoitzen Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2018ko otsailak 14

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordearen ustez bidezkoa da “EAEn adinduentzako egoitza-zentroei buruzko dekretu-proiektua” izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako gogoetekin. Bereziki, araudia aldatzeko kostuak ekonomiaren ikuspegitik ez daude zenbatetsiak eta gabezia horrek Batzordearen irizpen-funtzioa ahultzen du. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak igorri du eta irizpena 2018ko martxoaren 9an onartu da.

Dekretuaren xedea Euskadin adinduentzako egoitza-zentroak arautzea da, kalitatezko arretarako egoitza-zerbitzuak berma daitezen. Ildo horri jarraiki, laguntzaren eremuan araudia aldatu behar da, gerontologi arretaren egungo joerekin bat datozen prestazioak ziurtatzeko eta baldintza materialak eta funtzionalak, baita langileei buruzkoak ere kalitate-maila berdina bermatuko duen araubide berarekin homogeneizatzeko.

3/18 Irizpena jarraitzea: txosten hau egin den datan arau hau onartzeke dago.

EGABk gogorarazitakoaren arabera, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko lege arautzailearekin bat, halako arauak memoria ekonomikoa izan behar dute, partikularrentzat, administrazioetarako eta, oro har, ekonomiarako kostuak ebalua ditzan. Kasu honetan, dekretu berriaren eragin ekonomikoa ez da balioztatzen eta kostuak zenbatu edo zenbatetsi gabe daude, hortaz, memoria ekonomikoa egitearen legezko eskakizuna arriskuan dago eta helburua ezin daiteke betetzat jo.

Eragin ekonomikoa prebenitu behar izanari buruzko hausnarketa horretan, Batzordearen esanetan, administrazioak zehazki aztertu beharko luke egoitza-plazaren kostuari dagokion hazkuntza, sortzean eta, gero, kudeatzean, proposatutako aldaketen egiazko irismena antzemateko, are gehiago, egoitza-plaza gehienak administrazioak berak finantzatzen dituela kontuan hartuta.

Laguntza-eredua hautatzea oso garrantzitsua da, eskaini nahi den zerbitzu-mota definitzen baitu: gutxieneko arretarako espazio soziosanitarioa edo erabiltzaileen autonomia eta bizi-kalitatea hobetu nahi dituen zerbitzua. Ereduen aukera hautatutakoan, zeregin berezi horretarako baliabide mota eta kopurua zehaztuko dira. Nolanahi ere, aztertutako proiektuan zehaztugabetasuna ageri da eta, batez ere, larria da osasun-arreta eta atentzio psikosozialari dagokionez. Adibidez, osasuna kontrolatzea ez dago dekretuaren helburuetan, zaintzeari eta narriadura saihesteari buruzko aipamenetik urrunago, funtsezko faktorea izan arren. Beraz, balioztatu beharko litzateke kostuak zenbatzean. Horrekin batera, atentzio psikosoziala eredu zehaztu gabe egotearen beste adibide bat da. Itxuraz, eske horietarako langileen hornidura urria izan liteke, aldaezina mantentzeaz gain. Dirudienez, arreta psikosozialaren beharrak berdinak dira 0 mailako pertsonarentzat eta 3 mailakoarentzat, baita beren familientzat ere.

4/18 IRIZPENA, “beren kargura seme-alabak dituzten familiei laguntzeko laguntza ekonomikoen Dekretuaren aldaketa Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2018ko otsailak 15.

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da “seme-alabak dituztenentzat diru-laguntzei buruzko dekretuaren aldaketa-proiektua” izapidetzea. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak aurkeztu zuen eta irizpena 2018ko martxoaren 9an onartu zen.

Dekretua aldatuta, bigarren seme-alaba edukitzeagatik laguntzak bi urte betetzen dituztena arte zabaldu nahi dira eta, aldi berean, hainbat aldaketa sartu da, besteak beste, eskabideak izapidetzeari buruzkoa. Aipagarriena laguntza ukatzea da, pertsona eskatzaileari eskabidea izapidetzen ari den bitartean seme-alabaren zaintza eta babesa kentzen bazaizkio. Halakoetan, eskabidea bere ordeztu zaintza eta babesa duenak gauza dezake.

EGABk aldaketak positiboki balioetsi ditu, euskal familiengan babesa eta laguntza areagotzen baita eta irizpenari esker, Batzordeak demografi etenaldiri buruz eztabaidatu du.

Aurrekoaren harira, EGABk bere hausnarketa estatistika eta proiektioekin osatu du. Horien arabera, populazioa murriztuz doa eta 2002. urteaz gero, jaiotze-tasa jaisteak suposatzen dituen oztupoak gainditzeko, Eusko Jaurlaritzak familiei laguntzeko abian jarritako planetara jotzen du. Puntu honetan, Batzordea kezkati ageri da, azkeneko planari (indarrean 2011tik 2015era) dagokion ebaluazio txostena ikusi ondoren. Ekimen-sorta zabala ia bakarrik familiekiko laguntza ekonomikoetara mugatzen dela onartzen du.

EGABk diru-laguntzen zeregin garrantzitsua balioztatzen du, baina bere ustez, diru-laguntza nahikoak emateaz gain, funtsezkoa da zerbitzuen eta ekipamenduen nahikoa eskaintza zabala finkatzea, hain zuzen ere, familiek nahi dituzten seme-alabak izan ditzaten eta bizitzako eremuak egoki uztartzeko modua izan dezaten.

Euskadiko kontsulta-organoak gogorazitakoari jarraiki, seme-alabak dituzten familiek gizarte-balio izugarria eskaintzen dute eta aginte publikoek lagundu behar diete, balio hori bermatu eta zainduz. Amaitzeko, premiazkoa da aginte publikoek familia politika indartsuari aurre egitea eta oinarriari buruz taldean hausnarketa egitea komeni da.

4/18 Irizpena jarraitzea: 2018ko uztailaren 30ean Gobernu Kontseiluak, Enplegu eta Gizarte Politiketarako sailburuak proposatu ostean, seme-alabak dituzten familientzat diru-laguntzei buruzko dekretuaren aldaketa-proiektua onartu zuen. EHAAn argitaratu zen 2018ko abuztuaren 6an.

Laburbilduz, onartutako testuak zenbait aldaketa izan zuen jasotako ohar eta alegazioen ondorioz. EGABren proposamenak maila handian sartu zirela ondoriozta daiteke. Irizpenak xedatutakoari jarraiki, gogoeta guztiak kontuan hartu ziren.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

5/18 IRIZPENA, “erabilera turistikorako etxebizitza eta etxebizitza partikularretako gelen Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2018ko otsailak 26.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez egokia da “erabilera turistikorako etxebizitzaren eta etxebizitza partikularretako gelen dekretu proiektua” izapidetzea, kontsulta organo honek egin dituen gogoetekin. Proiektua Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egin du eta Batzordearen irizpena martxoaren 19koa da.

Irizpena izan duen araua turismoari buruzko legea (13/2016) garatzeko da. Airbnb, HomeAway eta antzeko plataformen bitartez oporraldietan alokatzeko eskaintzen diren etxebizitza pribatuak arautzea du helburu. Modalitate hori gorantz doa. Nolanahi ere, Eurostat 2017ren arabera, azkeneko urtean Europar Batasuneko biztanleen % 17k erabili du. Gaur egun “kolaborazio-ostalaritza” deritza. Batzordeak gogorarazitakoarekin bat, gai gatazkatsua da, bereziki, europar hiriburu batzuetan, beraz, bere iritziz, arautzea egokia da eta, aldi berean, eremuan izandako lege epaiei moldatzea. Aurrekoaren harira, batez ere plataforma horiek jarduera ekonomikoaren bitartekari bezala eta, beraz, turismo zerbitzuan beste eragile baten modura identifikatzen dituenari erreparatu behar zaio, turismoaren legea eta bere manuak bete behar baitituzte.

EGABren irizpenak ostalaritza-modalitate horrek izan ditzakeen arrisku batzuk zerrendatzen ditu. Hala nola, etxebizitza turistikoa masiboki zabaltzeagatik bizitegirako alokairuaren merkatua ordezkatu eta horri eragitea. Errentak igo daitezke eta bakarrik errentamendu xumerako aukera duten pertsonen kaltetuko zaie. Horrez gain, hiriburu turistikoenetan biztanleria egonkorraren ordez biztanleria mugikorra izateko arriskua dago horrek hiriaren eremuan dakarren eraginarekin. Eta, azkenik, bitartekaritza-plataforma batzuek zintzo ez jokatzearen arriskua dago. Edozelan ere, pantailazko identitateekin egiazko jabetza ezkuta dezakete, hortaz, enpresa eta egoera horiek gehiago kontrolatu behar direlakoan dago Batzordea.

Irizpenak beste kontingentzia bati buruz ohartarazten du eta udal aginpidearekin zerikusia du. Zehazki, udalerririk batzuek gaiaren inguruko araudirik ez dute edo izanda ere, ez dituzte gai garrantzitsuak arautzen, hala nola, jabetza horizontalean turismoarako etxebizitzaren eta etxebizitzetako gelen gehieneko kopurua, kokapena edo bete behar dituzten gutxieneko baldintzak.

Horregatik, irizpenak udal araudi aplikagarriak ez dagoenetan modu ordezkatzailan jarduteko dekretuaren edukia zabaltzea eskatzen du. Gainera, administrazioen arteko lankidetzaren xedatzeko artikulua gehitzea egokitzat jotzen du.

Azkenik, EGAB erabat ados dago turismo-etxebizitzaren jarduera bizilagun-erkidegoaren baimenaren arabera izatearekin. Horrez gain, dekretu berriak bere aplikazio-eremuan nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak ez dituela arautuko definitzea eskatzen du. Izan ere, horiek beren arautegia dute, landa-ingurune modalitate bereziak babesteko.

5/18 Irizpena jarraitzea: 2018ko uztailaren 3an Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak proposatu ostean, turismo-erabilerarako etxebizitza eta etxebizitzaren gelei buruzko dekretua onartu zuen, Batzordeak irizpena egin eta martxoaren 19ko Osoko Bilkuraren saioan berretsi ondoren.

Onartutako testuak aldaketa gutxi izan ditu eta, ondorioz, ez dute edukiaren funtsa aldatu.

Bere irizpenean, EGAB ekimena positiboki balioztatu zuen eta gogoeta orokor nahiz berezi laburrak egin zituen. Horietatik kontuan hartu dira arautik landa-eremuan dauden turismo-ostatuak ateratzearena eta erantzukizunpeko adierazpenari buruzko formal bat.

6/18 IRIZPENA, “Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikinen Azterketa Teknikoa eta Azterketa Teknikoen Erregistroa arautzen dituen Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2018ko otsailak 23.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gobernu Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da “Euskal Autonomia Erkidegoan eraikinen azterketa teknikoa eta azterketa teknikoen erregistroa arautzen duen dekretu-proiektua” izapidetzea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztu ostean. Irizpena 2018ko martxoaren 19ko Osoko Bilkuran onartu zen.

Arauk etxebizitzari buruzko 3/2015 Legeak 52. artikuluan xedatutakoa araubidez garatzea du helburu. Hala, oso-osorik eta arrazionaltasunez arautuko da eraikinen azterketa teknikoak egiteko modua, nagusiki bizitegirako badira. Gainera, azterketa egiteko antzinatasuna eta eskakizunak nahiz errepikapen-epea zehaztuko dira. Halaber, arauz garatzen ditu legeak sortutako azterketa teknikoen erregistroaren edukia eta eginkizunak. Nolanahi ere, erregistro horretan inskribatu beharko dira, nahitaez, egindako azterketa teknikoak.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak positibotzat jotzen du proiektu arautzaile hau, etxebizitzaren legeko 52. artikulua halabeharrezko araubidez garatzen baitu eta egun indarrean dagoen erregulazioa ordezkatu ere bai. Nolanahi ere, horren ordeztu eraikinen azterketa teknikoari buruzko arautegi eguneratua lortzen da, 3/2015 Legearen eskakizun eta edukiei egokitzearekin batera.

Euskadiko etxebizitzaren antzinatasunaren datuari erreparatzen badiogu, oso garrantzitsua da araudia izatea, eraikinek kontserbazio, segurtasun, estankotasun, egitura-finkapen, irisgarritasun eta energia-eraginkortasunaren baldintzak betetzen dituztela eraginkortasunez bermatzeko. Helburua bertan bizi diren pertsonak babestea da. Etxebizitza duina eta egokia izateko eskubide instituzionalak lotura estua du etxebizitza kokatuta dagoen eraikinaren baldintzekin.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak baieztatutakoaren arabera, arau-proiektuak prozedura zehatza du eta, oro har, diseinua egokia da, baina zenbait gogoeta ere azaldu du:

Dekretu-proiektuak ez du ezer esaten “bizitegiko erabilerearen nagusitasuna” interpretatzeko moduari buruz, eraikinak arauaren aplikazio-eremuan sartzeko edo kanpoan uzteko elementua izan arren. Zalantzak eta ulermen-zailtasunak sortzen dira bizitegira bideratutakoez gain, beste erabilera batzuk dituzten eraikinetan aplikatzearen inguruan, beraz, Batzordearen iritziz, ezinbestekoa da sailak ahalegina egitea dekretuaren testuan “nagusiki bizitegirako erabilera” kontzeptua mugatzeko. Helburu horrekin, irizpide argiak zehaztu beharko lituzke eta argi eta garbi gelditu beharko litzateke, arauari begira, zein eraikinetan bizitegiaren erabilera “nagusi” den.

Gai berari eutsiz, era berean, sailak sektorearen eremuko legeria kontuan hartu beharko luke, batzuek bizitegi-erabilera nagusia dutenetik ateratzen baitituzte jarduera ekonomikoaren ustiapenari lotutako etxebizitzak.

Batzordeak jarduerak kontrolatzeko araubidea eta balizko neurri hertsagarriak aipatzen ditu. Horiek bereziki interesgarriak dira, batetik, arauaren helburua eraginkortasunez betetzeko eta, bestetik, hori bete behar duten eraikinek garaiz eta formaz azterketak egin eta beharrezkoak diren esku-hartzeak gauzatzeko. Dena den, Batzordeak antzemandakoarekin bat, araubide hori ia ez da landu. Are gehiago, itxuraz, uko egin zaio eraikinetan azterketa teknikoak eraginkortasunez egiteko kontrol-sistema antolatua xedatzeari eta udalen esku utzi da. Besterik gabe,

6/18 Irizpena jarraitzea: “Euskal Autonomia Erkidegoan eraikinen azterketa teknikoa eta azterket teknikoaren erregistroa arautzeko dekretu-proiektua” 2018ko uztailaren 24an onartu zen. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak, ordea, 2018ko irailaren 5ean argitaratu zuen.

Laburbilduz, baieztatu daiteke proiektu arautzailearen testuak aldaketak dituela egindako irizpenaren ondorioz eta irizpenaren proposamen asko sartu dela.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

azterketa teknikoa egitearen eskakizuna borondatez betetzea sustatzen da eta eraikina hobetzearekin zerikusia duten laguntza publikoak lortzea mugatzen da. Hori guztia, aukeran, udalak edo gobernuak azterketa teknikoa horretarako behartuta dagoenaren pentzura egiteari kalterik egin gabe. Hala ere, ez da ezarri irizpiderik betearazpen subsidiario hori bideratzeko.

Azterketaren ondoriozko konponketen kostuei dagokienez, dekretuak honako aukera eskaintzen du: sailak edota udalek diru-laguntzen sistema egituratzea jabeen laguntzeko, eraikinen azterketa teknikoetako konponketa-obra finantzatzeko orduan zailtasunak izanez gero. Batzordearen ustez, ordea, urrunago iritsi beharko litzateke.

Azkenik, Batzordearen iritziz, komenigarria da ere honako hau beren beregi sartzeari proposaturiko lege-testuan: EATik baztertuta geldi daitezela aurrigoera adierazteko espedienteak hasita duten eraikinak.

7/18 IRIZPENA, “202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hileta osasunaren Araudia onartzen duena, aldatzeko Proiektuari buruzkoa”

Batzordea: Sozial garapenerako batzordea

Sarrera-data: martxoak 7

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da “EAEko hilotzen osasunari buruzko araudia onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren aldaketa-proiektua” izapidetzea. Hori Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aurkeztu zuen eta irizpena 2018ko martxoaren 28an onartu zen.

Dekretuak Osasun Sailak egiten dituen osasun-kontrolak optimizatzeko aldaketak sartzen ditu, besteak beste, agente patogenoek zabalduzko infekzio-gaixotasunekin zerikusia dutenak eta tanatopraxiaren jardunetarako baldintzak.

EGABren ustez, oso gai garrantzitsua da, garraiatzean, ehortzean, erraustean edo gorpuak ala gorpuzkiak hilotzeki ateratzean osasun kolektiboa babesten saiatzen baita hilotzen osasun-zaintza. Hala, horiei buruzko osasun-jardun mota guztiak arautzen ditu.

Batzordeak positiboki balioetsi ditu aldaketa guztiak, besteak beste, esklusiboki medikuak esku hartzearen legezko eskakizuna deuseztatzea eta osasun-aditu berriak sartzeari, tanatopraxia egiteko gaitu ostean. Helburua bere jardunari legezko estaldura eskaintzea da.

Gorpuzkiekin kutsatzeko arriskuari dagokionez, EGABk gogorarazitakoaren arabera, “gorpua” eta “gorpuzkiak” ez dira gauza bera. Beraz, proposatutako berrikuntzak gorpuzkien egoera eta tratamendua kontuan hartu beharko litzuzke, kutsatzeko arriskua balezakete. Ildo horri jarraiki, medikuak kutsatzeko arriskuak antzematen dituzenean, berehala jakinaraziko dio Eusko Jaurlaritzan Osasun Sailaren titularrari, bidezkoa bada, neurri egokiak har ditzan. Hala, Batzordea horrekin gorpuzkiak osasun publikoaren testuinguruan sartzen direlakoan dago, baina orain oso-osorik legezko berrikuntzan ez da jasotzen.

Azkenik, tanatopraxia tekniken ondorioz sor daitezkeen hondakinak osasun-hondakinei buruzko legediak xedatutakoaren arabera manipulatuta eta kudeatuta beharko lirateke eta hori testuan erantzea gomendatzen da.

7/18 Irizpena jarraitzea: 2018ko azaroaren 20an Gobernu Kontseiluak, Osasun sailburuak proposatu ostean, “EAEko hilotzen osasunari buruzko araudia onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua” onartu zuen. EHAAn argitaratu zen 2018ko azaroaren 28an.

Laburbilduz, onartutako testuak zenbait aldaketa izan zuen jasotako ohar eta alegazioen ondorioz. Gainera, idazkeran estiloa aldatu zen.

Ez zen EGABren proposamenik sartu. 2 gogoetak baztertu ziren.

8/18 IRIZPENA, “Gizarte Larrialdiko Laguntzen Dekretua bigarrenez aldatzeko Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2018ko martxoak 9

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da “gizarte-larrialdiko laguntzei buruzko dekretuaren bigarren aldaketaren proiektua” izapidetzea. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak aurkeztu zuen eta irizpena 2018ko martxoaren 28an onartu zen.

Aldaketak EAeko aurrekontu orokorretan esleitzen diren gizarte-larrialdiko laguntzak baliabide gehiagorekin osatzen dituzten udalerriei ordaina eskaintzeko mekanismoarekin zerikusia du. Eusko Jaurlaritzak laguntzak lurralde historiko eta udalerrien arabera banatzen ditu eta udal bakoitzari aurrekontu-mugak ipintzen dizkio. Aldaketaren helburua arau-aurreikuspenak sartzeko da, gizarte-larrialdiko laguntzek gaur egun bete behar duten araubide iragankorrean zehar ordain-mekanismoak behar bezala aplikatzeko.

Bere irizpenean, EBAk kontsultatutako aldaketaren aukera balioztatzen du, baina indarraldi mugatua izango duela gogorarazten du. Asko jota, arloan araudi berria indarrean sartzera arte iraungo du.

8/18 Irizpena jarraitzea: 2018ko ekainaren 5ean Gobernu Kontseiluak, Enplegu eta Gizarte Politiketarako sailburuak proposatu ostean, “gizarte-larrialdiko laguntzei buruzko dekretuaren bigarren aldaketaren proiektua” onartu zuen. EHAAn argitaratu zen 2018ko ekainaren 8an.

Bere irizpenean aldatu edo hobetzeko iradokizunik gabe Euskadiko EGABk izapidetzea egokitzat jo zuela gogorarazi behar dugu.

9/18 IRIZPENA, EAEn VII. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Proiektuari buruzkoa

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2018ko martxoak 6

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, azken ondorioetan “VII. EAeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren” asmoekin bat datozen neurriak eta bitartekoak falta dira eta, ondorioz, sinesgarritasuna kentzen diote. Dena den, izapidetzea egokitzat jotzen da, irizpenean egiten diren gogoetekin. Irizpena 2018ko martxoaren 28ko Osoko Bilkuran onartu zen.

Planak 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako denak, 15. artikuluan xedatutako legezko aurreikuspenari erantzuten dio. Horren arabera, legegaldi bakoitzaren hasieran emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal aginte publikoen jarduera bidera dadin plan orokorra onartu behar da, orokorrean eta koordinatuta esku-hartze ildoak eta gidalerroak zehazteko.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak plana orokorrean balioztatu baino lehen bi gai formulatzen ditu. Irizpidea egiteko premiaren izapideari dagokionez, Batzordeak adierazitakoaren arabera, lau urtez behingo planak analisi-denbora eskatzen du, agiriaren hedapen eta garrantziarekin bat. Gainera, lehenengoz landuko du Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana, beraz, azterketa eta hausnarketa lasaiagoa egin nahiko luke, ekarpen zehatz eta sakonagoarekin batera. Bigarrena ekonomia- eta gizarte-eragileen partaidetzari eta planaren “gizarte-alderatzeari” buruzkoa da. Horiek gustuko lukete egiazko partaidetza izatea. Bakarrik ekarpenak entregatzearen aldean, eztabaidarako guneak eta planaren edukiak egiaz alderatzea faltan botatzen dute. Halaber, ekonomia- eta gizarte-eragileekin topaketarako eta solaserako guneak irekitzea, plana egiteko bermeak dira eta hala uste du Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak jaso beharko

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

litzatekeela planaren beraren testuan eta Emakunderen nahiz gauzatzean nahasiak dauden sail eta erakundeen jardunean.

Plana bizian egiazko gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrerantz eta ez-diskriminaziorantz aurrera pausoak emateko tresnez hornitzeari begira Euskadik bere aginpideak erabiliz egindako ibilbidean txertatzen da. Ildo horri eutsiz, esku-hartzeen lerroak eta gidalerroak planifikatzeko dinamikaren zazpigarren plana da.

Helburua gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan euskal aginte publikoen jardura bideratzea da. Testuinguru honetan, Batzordeak atsegin handiz hartzen du ekimen hau, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak xedatutakoa, hau da, legealdi bakoitzaren hasieran berdintasunerako plana egitea betetzen baita, nahiz eta atzerapen nabarmenarekin iritsi. Nolanahi ere, bizi politiko, ekonomiko eta sozialaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen egiazko berdintasun eraginkorra lortzearen aldeko ahaleginari batzen zaio. Era berean, Batzordeak planaren borondate laudagarria balioztatzen du. Horren arabera, jarduerak operatiboak izan nahi dute eta eragina sortu ere bai. Xede horrez, planaren jardura eusteko “bermeak” edo aurretiazko baldintzak sartu dira. Metodologiaren ikuspegitik dokumentua ondo egituratua dago, baita esku hartzeko ardatzen xehetasunean oso landua ere, edukiak aurreko planarekin parekotasun handia izan arren. Hala eta guztiz ere, jada zazpigarren plana denez eta planez plan programak eta helburuak errepikatzen direnez, honakoa galdetzen dio Batzordeak bere buruari: ez al den sektoreetan esku hartzeko planak planteatzearen garaia iritsi. Izan ere, horiek mugatuak daudenez, egiteko orduan arrakastatsuagoak izan daitezke.

Halaber, Batzordeak gogoetak egin ditu hurrengo gaiei buruz:

Planean ez da aurreko plana ebaluatu. Batzorderen ustez, planaren mamian abiapuntu bezala VI. planaren ebaluazioari buruzko emaitzak aurkeztea ezinbestekoa da eta hori izan ezean, irakurlea aurreko planaren gauzatze-emaitzei buruz erreferentziarik gabe gelditzen da eta, ondorioz, zer neurritan lortu den helburu bakoitza ez daki. Horrez gain, berarentzat ezezagunak dira abian jarritako neurrien eraginkortasun handiagoa edo txikiagoa eta plan berriari onartutako aukeren egokitasuna.

Era berean, hasierako datuak erreferentziatzen jo beharko liriteke plan berriaren helburuak kuantifikatu eta bilakaera jarraitzeko. Alderdi hori ere dokumentuan ez da ageri, hurrengo atalean aipatutakoari jarraiki.

Batzordeak ohartarazitakoarekin bat, plana dokumentu gidari huts bezala konfiguraturik dago, hau da, Euskadiko aginte publikoek jarduteko esku-hartze lerro orokorrak eta gidalerroak adierazten ditu. Horrek planaren konpromisoan ahulezia iradoki du. Horri erantsi behar zaio planaren helburuak deskribapen moduan idatziak daudela, zenbakirik gabe, denbora finkatu gabe, beraz, zehaztea erakunde eta sail desberdinen erabakien arabera izango da. Hala, dokumentuak asmoa eta sinesgarritasuna galtzen ditu.

Bere ardatz eta helburuen katalogo guztian zehar, orokorrean, planari neurri zehatzak falta zaizkio eta bere nahia murrizten da, bere operatibotasuna arriskuan jartzearekin batera.

Batzordeak azpimarratu nahi duen beste alderdi bat aurrekontuaren ingurukoa da. Nolanahi ere, plana eraginkortasunez gauzatzeko aurrekontu-hornidura nahikoa behar da eta planak aipamenik ez du egiten. Batzordearen iritziz, planean bertan Emakundek garatu behar dituen zereginerako aurrekontu-hornidura zehaztea ezinbestekoa da. Halaber, gutxienez,

9/18 Irizpena jarraitzea: 2018ko maiatzaren 22an Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak “VII. EAeko gizon eta emakumeen berdintasunerako plana” onartu zuen eta, azkenik, 2018ko ekainaren 19ko Gobernu Kontseiluak berretsi zuen.

Laburbilduz, baieztatu daiteke kontsultatutako planaren testuak behin betiko onetsi denean aldaketa gutxi duela. EGABk bere irizpenean egindako proposamenak sartzeari buruz, urriak dira. Plana garatzeko bitarteko ekonomikoek aipamen bat egin zaie eta adierazlearen proposamen zehatza kontuan hartu da.

gainerako Eusko Jaurlaritzako sail partaideen ekarpenak zenbatu beharko lirateke. Bestela, planaren helburuak betetzeko aurrekontu estaldurarik ba al dagoen ezin daiteke ezagutu. Gainera, aurrekontua sartuz gero, planaren potentzia eta errealitatearen gainean eragiteko gaitasuna antzemango ditugu.

Azkenik, biziaren alderdi guztietan gizonen eta emakumeen desberdintasuna eusten duten balioak aldatzeko hezkuntzaren balio eztabaia ezina azpimarratu nahi du. Ildo horri jarraiki, hezkuntzak maila guztietan, agian, nagusitasun handiagoa izan beharko luke. Planak bere edukietan zehar hezkuntzaren dimentsioa landu arren, sektorearen ikuspegitik egiten du, baina berriaz esku hartzeko ardatzean konfiguratzeko planteatu daiteke.

10/18 IRIZPENA, “Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duen Dekretu Proiektuari”

buruzkoa

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2018ko martxoak 12

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, “EAEn familia-harrera arautzeko dekretu-proiektua” izapidetzea egokia da, kontsulta organo honek egin dituen gogoetekin. Proiektua Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak egin du eta Batzordearen irizpena apirilaren 13koa da.

Arauen helburua familia-harreraren modalitate desberdinak eta adingabeen familia-harreraren kasuetan Foru Aldundiek jarraitu behar duten jardueraren prozedura arautzea da, adingabe horiek erakundeen zaintzapean edo babespean badaude. Bere erantzunean, EGABk gogorazitakoaren arabera, haurrak eta nerabeak babestu eta arreta eskaintzeko euskal legea (otsailaren 18ko 3/2005 Legea) onartu zenetik, jada hamabi urte baino gehiago igaro dira eta familia-harrera arautegiaren ikuspegitik ez da garatu, hortaz, ezin izan da aurrera egin aldi batean eta modu erkidean hiru lurralde historikoetan aipatu babes-eremuan.

Aztertutako dekretua arestian aipatu den legearen garapenean kokatzen da eta eremuan estatuko arautegiak sartu dituen aldaketak kontuan hartzen ditu. Gainera, EGABren iritziz, arau berria 2015. urteko Arartekoaren txostenaren ildotik doa. Horrekin bat, adingabeei arreta eskaintzeko orduan, nagusiki, familia partikularrei erreparatzea gomendatzen zen. Horregatik, oso positibotzat jotzen du dekretuaren proiektua, irizpenean hainbat urritasun antzeman arren. Besteak beste, honako hauek liraterik: testuan bestelako harrera aukerak ez jasotzea, hala nola, asteburuak eta oporraldiak. Aipatu modalitateak dekretuak erantsi beharko lituzke, Euskadiko kontsulta organoaren ustez.

Eusko Jaurlaritzaren proiektuak azpimarratutakoaren arabera, balorazio psikosoziala egin behar da familia edo pertsona hartzaileen egokitasuna jakiteko eta atal honetan arauak familia hartzaileen egokitasuna muga dadin irizpideak xedatzen ditu, harrerarako pertsonen edo horiekin bizikidetzen dihardutenek desgaitasun fisikoa, psikikoa edo intelektuala dutenerako. EGABren iritziz, irizpide horiek desgaitasuna duten pertsonen pertsona hartzailearen baldintza lortzeko diskriminazioa dira. Are gehiago, desgaitasuna duen pertsona guraso biologikoa izateko ez dagoela gaitua dirudi.

10/18 Irizpena jarraitzea: 2018ko abenduaren 11n Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak proposatu ostean, “Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duen dekretua” onartu zuen, baina lehenago Batzorde honek irizpena egin eta apirilaren 13ko Osoko Bilkuraren saioan berretsi zen.

Onartutako testuak artikulatuak berrantolatatu ditu eta aldaketa batzuk ere egin zaizkio, baina edukiaren funtsa ez dute aldatzen. Bere irizpenean, EGABk positiboki balioztatu zuen ekimena, gogoeta orokor eta berezi batzuekin.

Berezietatik, hainbat kontuan hartu da eta artikuluetan erantsi dira. Dena den, hartzeko desgaitasuna duten pertsonen egokitasunari buruzko gogoeta orokorrak onartutako arauan

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Batzordearen ustez, dekretuak frogaren zama alderantzizkatzen du, orokorrean, ezintasunaren ustezkoa esleitzen die desgaitasuna duten pertsonei hartzaileak izateko, gaituak daudela pentsatzearen orde. Edozelan ere, administrazioak egiaztatu beharko luke ezintasuna.

Irizpenak beste gomendio batzuk ematen ditu, hala nola, familia-harrera aditua eta familia-harrera profesionalizatua bereizteko orduan, definizio zehatzagoa ematea. Halaber, familia edo pertsona hartzaileen egokitasuna balioztatzean neurria aldi batean onartzeko gaitasuna kontuan hartu beharko litzateke. Nolanahi ere, argi gelditu behar du adopzio aurreko harrera ez dela. Alderdi horren inguruan lege segurtasuna indartzeko, Batzordeak gomendatzen du dekretuan berariaz azaltzea adopzio aurreko familia harrerak egoera bereziak direla eta, ondorioz, beste arautegi bat dagozkiela.

Azkenek, EGABk eskatutakoari jarraiki, familia edo pertsona hartzaileek pertsona adingabeei buruzko informazio guztia izan beharko lukete, beren ezaugarri familiarak eta pertsonalak barne. Gainera, abilezietan eta gaitasunetan prestakuntza jasotzeko eskubidea berariaz onartu beharko litzateke, adingabe hartuaren behar bereziei erreparatu, horiek familiaren gainkarga jasateko beharrezkoak badira.

11/18 IRIZPENA, “Euskal Autonomia Erkidegoan ibilgailuen hornidurarako arretarik ez duten instalazioek bete beharreko baldintzen inguruko Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2018ko apirilak 11.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, “Euskal Autonomia Erkidegoan ibilgailuak erregaiz hornitzeko arretarik gabeko instalazioek bete behar dituzten baldintzei buruzko dekretu-proiektuaren” arautegiak eztabaida lasaia eta zuhurra eskatzen du, erabakiek oso alderdi garrantzitsuei eragingo baitizkiete: enpresaren askatasun (negozioa aske hautatzea), lehia libre (egiazkoa eta eraginkorra), sektorearen enplegu edo pertsonen segurtasun eta babesari. Horregatik, Batzordearen ustez, kasu honetan bereziki, jokoan dauden interesen eta eskubideen arteko bidezko oreka ezinbestekoa da aukera balioztatzeke, beraz, hainbat gogoeta orokor eta berezi planteatzen ditu. Arau-proiektua Eusko Jaurlaritzako Garapen eta Azpiegitura Sailak aurkeztu zuen eta irizpena 2018ko maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran onartu zen.

Arauk Euskal Autonomiaren Erkidegoan automobilgintzako erregaiak jendeari saltzen dizkieten instalazioek bete behar dituzten baldintzak garatzea du xede, horiek ez badute inolako arretarik edo hori zati batean eskaintzen bada. Batetik, instalazioen segurtasuna bermatu eta, bestetik, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babestu nahi dira.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak badaki gai hau oso eztabaidagarria dela, bi negozio-eredu desberdinetan interes kontrajarriak baitaude, baita ibilbide luzeko lege-gatazkak ere. Are gehiago, erkidegoko arautegiaz gain, estatukoa eta europarra arriskuan daude.

Batzordearen esanetan, arretarik gabeko gasolindegia automobilgintzarako hidrokarburoen txikizkako salmenta-merkatuan formatu berria dira, “arreta duen” zerbitzu-estazioaren eredu tradizionalaren edo “autozerbitzukoaren” aldean. Horietan zerbitzua eskaintzeko langileak daude. Erabiltzailea erregaiak hornitzeko automatizazioan oinarrituta, negozio-eredu horrek automobilak hidrokarburoz hornitzeko merkatuan lehia gehi lezake eta prezioek beherantz egitea behartuko luke. Dena den, aldi berean, ereduari atxikitako hainbat arazo dakar eta legearen ikuspegitik lantzea konplexua da. Hurrengo alderdiekin zerikusia dute:

- Lanpostuak galtzea. Langilerik ez izatea faktore lehiakor garrantzitsua da eta horretan oinarri daiteke prezio merkeagoa, zerbitzu-estazio tradizionalaren ereduarekin erkatuz gero.
- Pertsonen segurtasunari eta ingurumenari buruzko alderdiak. Gasolindegiko langileek pertsonak eta ingurumena babestea bermatzen dute, edozein istripu edo gorabehera berehala ebazteko eskura baitaude. Halaber, prebentzio-lanetan dihardute. Horiek estazio automatikoetan beste bide batzuk erabiliz lortu behar dira.
- Kontsumitzaileen eskubideei buruzko alderdiak. “Arreta gabeko zerbitzu estazioaren” negozio-ereduan langilerik ez egoteak ezin ditzake kontsumitzaileen eskubideak lermatu, ezta instalazioaren jabeak bereak dituen betebeharretan kontsumitzailearen erantzukizuna gehitu ere.
- Desgaitasuna duten pertsonak babesteari buruzko alderdiak. Gasolindegi automatikoen ereduaren ezaugarriengatik arreta berezia jarri behar zaie modalitate desberdinei desgaitasunak dituzten pertsonen taldeak zerbitzua izateko.

11/18 Irizpena jarraitzea: “ibilgailuak erregaiez txikizka hornitzeko arretarik gabeko instalazioek bete behar dituzten baldintzei buruzko dekretu-proiektua” Gobernuaren Kontseiluak 2018ko azaroaren 20an onartu zuen eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak 2018ko abenduaren 5ean argitaratu zen.

Laburbilduz, baieztatu daiteke proiektu arautzailearen testuak aldaketak dituela egindako irizpenaren ondorioz eta irizpenaren proposamen asko sartu dela.

Halaber, Batzordeak interesak kontrajartzearen ondorioz, maila desberdinetan araudiek dituzten lege-gatazkak aipatzen ditu. Ildo horretatik, Ekonomia Garapen eta Azpiegitura Sailak Euskadin onartu nahi duen euskal araudia ez da salbuetsia gelditzen.

Autonomia erkidego askotan halabeharrez arretarik gabeko estazioetan langile batek egon behar duela xedatu da, bai funtzionatzen ari den bitartean, bai eguneko ordutegian, arautegiak onartzen dituen kontsumitzailearen eskubideak bermatzeko eta desgaitasuna duten erabiltzaileei ala zailtasunak dituztenei laguntza eskaintzeko. Euskadin aztertzen ari garen dekretu proiektu honen aurreko proiektuak ikuspegi berarekin lerrotzeko ziren.

Barnean erkidegoetako arau batzuen kontra egin eta gaia Europar Batzordera iritsi da. Horren arabera, langilearen eskakizunak muga jartzen du eta bateraezina da kokapenaren askatasunari dagokionean Europar Batzordearen zuzenbidearekin. Batzordearen irizpidepean neurrizko eta halabeharrezko interes orokorraren ezinbesteko arrazoietan justifikazioa ez da egiaztatu. Egoera horren aurrean, nahasitako autonomia erkidegoek beren arautegiak edo proiektuak aldatu edo indargabetu dituzte.

12/18 IRIZPENA “Ikuskizun Publiko eta Garapen Jardueri buruzko Legearen Garapen Araudia onartzen duen Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2018ko ekainak 14.

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren legeari buruzko garapen-erregulamendua onartzeko dekretu-proiektua izapidetzea. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak aurkeztu du eta irizpena 2018ko uztailaren 5ean onartu zen.

12/18 Irizpena jarraitzea: txosten hau egin den datan arau hau onartzeke dago.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

10/2015 Legea, abenduaren 23koa, jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jardueri buruzkoa, araubidez garatu nahi du. Izan ere, egiteko tokiei baldintzak jarri nahi dizkie, burutzeko baldintzak, zaintza, kontrola eta ikuskapena, zehapenen erregistroa eta berriz hezteko neurriak zehazteaz gain.

EGABk pozik hartzen du harrera-zerbitzuko langileen jarduera profesionalizatu eta arautzea, langile horiek beren zenbait jardunekin gatazka eratu baitute eta erabiltzaileak larriki kaltetuak suertatu baitira. Dekretuak zerbitzuko langileak proba teoriko-praktikoa gainditzera behartzen ditu, nahiz eta ez zehaztu edukia. Kasu horretan gero garatuko den agindura bidaltzen du.

EGABren iritziz, aginduan gaien zerrenda zehaztearen zain, dekretuak eranskina izan beharko luke eskatu behar den prestakuntzaren gutxieneko edukiarekin. Ildo horri eutsiz, Batzordeak eduki teorikoa (oinarrizko eskubideak, onartzeko eskubidea, segurtasun-neurriak, ordutegia eta adingabeen lege-araubidea...) eta eduki praktikoa (lehen sorospenak, arrisku-egoeratan protokoloa, autokontrola eta defentsa pertsonala muturreko egoeratan...) konbinatzea proposatzen du.

Era berean, irizpenak bizikidetasuna kalte dezakeen beste alderdi bat aipatzen du. Ikuskizunek eta jarduerak sortutako kutsadura akustikoaz ari da, horiek aire zabalean edo bide publikoetan egiten direnean. Aurrekoaren harira, EGABren ustez funtsezkoa da jarduera horiek kontrolatu eta nahasitako biztanleei informazio- eta komunikazio-prozesuak bermatzea.

Azkenik, irizpenak zerbitzu zehatzez (jantziegia, harrera, segurtasuna...) arduratzen diren langileen lan-eskubideak bermatu behar direla dio. Hala, lan-baldintzak izan daitekeen araudi bereziarekin eta negoziazio kolektiboetan hitzartutakoarekin bat etorriko dira.

13/18 IRIZPENA, “Euskadiko Kooperatiben Legearen Aurreproiektuari” buruzkoa

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2018ko maiatzak 28

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari egokia irudi zaio “Euskadiko kooperatiben lege-aurreproiektua” izapidetzea, kontsulta organo honek egin dituen gogoetak kontuan hartuta.

Lege-aurreproiektua Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak bidali du eta helburua Euskadiko kooperatiben legean izandako aldaketak jaso eta bateratzea da. Hori duela 24 urte (ekainaren 24ko 4/1993 Legea) onartu zen eta erronka orokor berrietara egokitu behar da.

2018ko ekainaren 27an egindako irizpenean, EGABk gogorazitakoari jarraiki, duela hiru urte jada proiektu arautzaile honen aurreko bertsioari zegokion irizpena (abenduaren 11ko 21/2015 Irizpena) gauzatu eta ekimena positiboki balioetsi zen, orain egin den moduan. Batzordeak garai hartan planteatu zen zenbait gomendio proiektu berrian kontuan hartu dela antzeman du. Beste gogoeta batzuekin, ordea, ez da gauza bera gertatu.

Azkenekoen artean dago lege-aurreproiektuak Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa “gizarte-eragile” bezala jotzarekin desadostasuna. Irizpenak azaldutakoaren arabera, ez da egokia nahastea sor dezakeen terminoa erabiltzea. Nolanahi ere, lagunarteko mintzairan Kooperatiben Konfederazioarekiko izaera desberdineko beste erakunde batzuk (sindikatuak eta patronala) aipatzen ditu, beraz, Kooperatiben Konfederazioa “eragile solaskide” izendatzea proposatzen du.

Gogoeta hori alde batera utzita, EGABren irizpenak proiektu arautzailearen bestelako gaiak lantzen ditu eta, besteak beste, online kooperatiba eztabaidagarriari buruz ohartarazten du. Web plataformak dira eta lan elkaturako kooperatiben estatutuari eutsita, fakturak egin ditzakete pertsona autonomo edo freelance baten izenean zerbitzuan alta ematearen truke. EGABren esanetan, halako egoeratan arduratsua izan behar da, mugimendu kooperatiboaren izaera hutsaltzen baitute.

Halaber, proposatutakoarekin bat, lege berriak landu beharko luke sozietate kooperatiboaren eta bazkideen arteko komunikazioak bitarteko elektronikoz egitea eta gizarte-ekimeneko kooperatiben izaera artikuluetan definitzea, erabilera publikoko kooperatibak arautzen diren moduan.

Irizpenak EGABren Osoko Bilkuran Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko (KONFEKOOP) eta Euskadiko Kontsumitzaileen Erakundeetako ordezkarien aurkako boto partikularra izan du.

Boto partikularren arabera, Kooperatiben Konfederazioa gizarte-eragilearen ordezkari eragile solaskide bezala kalifikatzea ez da oinarritzeko lege-arauetan funtsatzen eta KONFEKOOP gizarte-eragile modura mantentzea defendatzen du. Horrez gain, erakunde-ordezkaritzaren eremuetan halaberrez enplegua sartu beharko litzateke, kooperatibismoaren jardun solaskidea sustatzeko.

14/18 IRIZPENA, “Euskal Autonomia Erkidegoan adingabe atzerritarrak aldi baterako etortzeko programen Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Gizarte Garapeneko Batzordea

Sarrera-data: 2018ko uztailak 6

Emaitza: Euskadiko EGABren iritziz, egokia da “EAEra adingabe atzerritarrak aldi baterako etortzeko programei buruzko dekretu-proiektua” izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin. Proiektua Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak egin du eta Batzordearen irizpena uztailaren 26koa da.

Arauk adingabe atzerritarrak Euskal Autonomia Erkidegora aldi baterako etortzeko programa humanitarioek izan behar dituzten baldintzak zehazten ditu. Duela hiru hamarkada, Euskadik programa humanitario desberdinak izan ditu adingabeak aldi batean bertan egoteko, hala nola, Txernobyngo istripu nuklearrarengatik kaltetutakoak edo Saharako Tindufeko kanpamentuetan errefuxiatuak. Ekimen horiek bilakaera izan dute eta EGABk positiboki balioztatu du proposatutako arautegia, legezko esparruz hornitzen baititu hain beharrezkoak diren ekimenak.

13/18 Irizpena jarraitzea: 2018ko abenduaren 18an Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, Lan eta Justizia Sailak proposatu ostean, “Euskadiko kooperatiben lege-proiektua” onartu zuen. Aldez aurretik Batzorde honek irizpena egin eta uztailaren 5eko Osoko Bilkuraren saioan berretsi zen. Gero, Legebiltzarrari bidali zitzaion prozedurarekin jarraitzeko.

Onartutako testuak hainbat aldaketa izan du irizpenaren bertsioarekiko, baina ez dute edukiaren funtsa aldatu.

Bere irizpenean, EGABk positiboki balioztatu zuen ekimena, zenbait gogoeta orokor eta berezi askorekin.

Berezien artean, batzuk artikuluetan erantsi dira, baita gizarte-ekimeneko kooperatibei buruzko orokorra ere. Dena den, gizarte-eragile gisa Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari buruzko gogoeta orokorra ez da kontuan hartu.

14/18 Irizpena jarraitzea: 2018ko abenduaren 11n Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak proposatu ostean, “pertsona atzerritar adingabeak aldi baterako Euskal Autonomia Erkidegora etortzeko programa humanitarioei buruzko dekretua” onartu zuen. Batzordeak aldez aurretik irizpena egin eta uztailaren 26ko Osoko Bilkuraren saioan berretsi zuen.

Onartutako testuak artikuluek berrantolatatu ditu eta aldaketa batzuk ere egin zaizkio, baina edukiaren funtsa ez dute aldatzen. Bere irizpenean, EGABk positiboki balioztatu zuen ekimena, baina gogoeta orokor eta berezi laburrak egin zituen. Bereziatetik, hainbat kontuan hartu da eta artikuluetan erantsi dira. Dena den, gogoeta orokor nagusiak, pertsona hartzaileen gehieneko adinari buruzkoak, gutxieneko eragina izan du onartutako arauan: muga mantentzen da, bost urtetan gehitu arren.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Hala eta guztiz ere, EGABren irizpenak gehieneko adina (60 urte) mugatzearekin zerikusia duen desakordioa azpimarratzen du. Dekretuak hala ezartzen du eskolatzeko helburuz bertaratutako adingabeak zaindu nahi dituzten arduradunentzat. Batzordearen ustez, adinarengatik mugak berdintasunerako eskubidea urra dezake, nahiz eta Konstituzioak 14. artikuluan onartzen duen. Izan ere, neurriak ez du justifikaziorik, neurriz kanpokoa da eta arrazoitu gabe dago, beraz, diskriminatzen du. Argi dago pertsona helduek zaintza onartzeko baldintza ekonomiko hobeak eta egonkortasun emozional handiagoa izan ditzaketela. Ildo horri jarraiki, Batzordeari harrigarria iruditzen zaio dekretuak adinaren gehieneko muga ezartzea eta, aldi berean, zaintza onartzeko 18 urteko gutxieneko muga mantentzea. Itxuraz, ez dago justifikatua eta ez da neurritzkoa zaintza onartzeko 18 urteko pertsona batek 60 urtekoak baino posizio hobe duela pentsatzea, bigarrenak gaitasun fisiko eta mentalak behar bezala baditu.

Bestalde, EGABk Lehen Hezkuntza adingabeen eskolatzeko helburuz aldi baterako egonaldien barruan sartzeko aukera balioztatzea proposatzen du. Nolanahi ere, dekretuaren egungo idazkerak bakarrik DBH aurrez ikusten du. Azkenik, komenigarria litzateke dekretuaren izenburuan adingabeak aldi baterako etortzearen atzean dauden arrazoi humanitarioen berariazko aipamena sartzeko, lege-segurtasun arrazoiengatik.

15/18 IRIZPENA, “Enplegu Publikoaren Legearen Aurreproiektuari” buruzkoa

Batzordea: Sozial Garapeneko Batzordea

Sarrera-data: 2018ko ekainak 13

15/18 Irizpena jarraitzea: txosten hau egin den datan arau hau onartzeke dago.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, “Euskadiko enplegu publikoari buruzko lege-aurreproiektua” izapidetzea egokia da. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak aurkeztu du eta irizpena 2018ko uztailaren 26ko Osoko Bilkuran onartu da.

Arauaren xedea euskal enplegu publikoa antolatu, lege-araubidea definitu eta kudeaketa-tresnak garatzea da. Euskal enplegu publikoa edozein euskal administrazio publikotan lanbide-zerbitzu ordainduak eskaintzeko lanpostuen multzoa da. Egun arloa euskal funtzio publikoaren 6/1989 Legeak arautzen du eta ordezkatu nahi da.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez oso beharrezkoa da enplegu publikoari buruzko lege-proiektua egitea. Gainera, bereziki egokia da 1989ko indarreko funtzio publikoaren legea ordezkatzeko, euskal administrazio publikoek errealitate berriei aurre egin behar dietela kontuan hartuta eta euskal enpleguaren sistema publikoan elementu berriztatzaileak sartzeko legearen ikuspegitik sortu diren aukera berriei erreparatuz. Beraz, erroka berrietara hobe egokitzen den arautegia egituratuko da.

Aurreproiektuak aurrekaria 2015eko aurreproiektuan du. Batzordeak bere iritzia emateko aukera izan zuen. Aldaketa ugari egin arren, arkitektura, elementu nagusiak eta edukia gordetzen ditu, hortaz, 9/2015 irizpeneko gogoetak abiapuntuko erreferentziak dira irizpen berria egiteko.

Batzordeak pozik ikusten du aurreproiektuak LPOEren 37. artikulua garatzea eta negoziazio-arloak zehazten ditu. Enplegu publikoari eragiten dizkieten gaiten sindikatuen partaidetza-bermeak argiagoak dira. Dena den, negoziazio-arloak gehiago eta argiago zehazteko eta eskumenak onartu dituen arloak gehitzeko aukera aprobetxatu zitekeen. Ildo horri eutsiz, euskal enplegu publikoaren legea aplikatzean euskal administrazio publikoetan negoziazio kolektibo eraginkorra bermatzea beharrezkoa dela azpimarratzen da. Irizkiak trukatzeko bi norabideetan bideak eta tresnak zehaztu behar dira, bi aldeak aseko dituen akordiora iristeko.

Bestalde, Batzordeak euskal administrazio publikoaren eredu oso, arrazional eta eraginkorrerantz aurrerapausoak ematearen aldeko apustua egiten du. Hala, gure Erkidegoaren legezko esparruaren barruan Euskadiko erakunde-maila desberdinetako (orokorra, forukoa eta tokikoa) langileak hartuko ditu eta administrazio ezberdinetako langileen artean gaur egungo desberdintasun konparatiboak gaindituko dira.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez ezinbestekoa da negoziatziorako esparru mahaia, lege-aurreproiektuaren 197.1. artikuluan aurrez ikusitakoa, aukera hutsean ez gelditzea, gauzatu eta eraginkortasunez eratztea baizik.

Zuzendari profesional publikoa eta bere estatutua dira elementurik berriztatzaileenak Eusko Jaurlaritzak ekindako enplegu publikoaren sistemari buruzko berrikuntzan.

Irizpenak berriz errepikatzen du 2015eko gogoeta: irudia langile publikoen profesionalizaziorantz bideratu behar da eta zuzendaritza-lanpostuak administrazio langileei utzi behar zaizkie, bai funtzionarioei, bai lan-kontratukoei. Arrazoitu ostean, salbuespen bakarra izango da: egin beharreko funtzioen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, kanpoko langileak kontratatzea funtzionario edo lan-kontratu finkoko langile gaiturik ez dagoelako.

Aldi baterako enplegu publikoak oso maila altuak ditu eta urte askotan zehar zabaldu da joera hori. Horiek finkatzeari dagokionez, Batzordea kezkatu ageri da. Gogoeten zati bat eskaini dio aztertzeari eta lege-aurreproiektuaren xedapen iragankorren babesean, 2015eko legearen aurreproiektuan aitzindarietako aldaketak dituela dio. Nolanahi ere, aldaketen esanahi zehatzek bereizteko orduan zailtasunak planteatzen dituzte.

Hizkuntza-normalizazioaren arloan, Batzordearen esanetan, 2015eko irizpenean adierazitako zuhurtzia berak daude hautespen eta hornidura prozesuetako hizkuntza-eskakizun eta euskararen erabilerari buruzko normalizazio-planei dagokienez. Langile publikoen lanbide-karreraren eragina izan dezake, beren borondatez kanpoko arrazoiengatik, beren lanposturako zehaztutako hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzea. Esleitutako hizkuntza-eskakizuna nahitaez betetzeko orduan, baita hautespen- eta sustapen-prozesuetan ere, adina salbuesteko arrazoi objektibo nabarmentzat jotzen da. Helburua mugikortasunaren bitartez eta tokiz aldatzeko lehiaketetan parte hartuz barne-sustapenaren aukerak ez blokeatzea da.

Berdintasun-planei dagokienez, Batzordea harrituta dago aurreko aurreproiektuko hamaseigarren xedapen gehigarria desagertu delako. Horren arabera, administrazio publikoek ezinbestez errespetatu behar zuten tratua eta aukera-berdintasuna lanaren eremuan eta neurriak hartu behar zituzten lanean gizonen eta emakumeen artean edozein diskriminazio-mota saihesteko. Halaber, administrazio publikoek berdintasun plana egin, onartu eta aplikatu behar zuten nahitaez eta aldez aurretik sindikatuen ordezkariarekin negoziatu behar zen. Are gehiago, legea onartu zenetik plana onartzeko bi urteko epea finkatu zen.

Horregatik, Batzordearentzat ezinbestekoa da xedapen gehigarri hori aurreproiektuaren testuan berreskuratzea eta, modu horretan, esku-hartze lerro eta gidalerro zehatzekin konpromisoa formalizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan administrazio publikoaren jardura bideratzeko.

Legearen aurreproiektuak 200. artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat, euskal administrazio publikoek eta sindikatu-erakundeek gatazka kolektiboak judiziorik kanpo konpontzeko sistemak sortu, egituratu eta garatzea erabaki dezakete. Horrez gain, modu iragankorrean, organo hori sortu arte, Lan Harremanetarako Kontseiluari (CRL-LHK) esleitzen dizkiote bitartekaritza- eta arbitraje-lanak, EAEko administrazioan lan-kontratuko langileen gatazka kolektiboak judiziorik kanpo konpontzeko badira.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Batzordeak egokitzat jotzen du jada antolatuak dauden egiturak eta bitartekoak aprobetxatzea gatazkak judizioz kanpo ebazteko, organo gehigarriak sortu gabe eta dauden baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliz. Ildo horretatik, Lan Harremanetarako Kontseilua (CRL-LHK) euskal administrazio publikoaren eremuan lan-gatazkak judizioz kanpo konpontzeko gaitzea aukera arrazional eta egokiagoa da. Izan ere, erakunde horrek PRECOren bidez Euskadin lan gatazkak adiskidetze, bitartekaritza eta arbitrajearen bitartez judizioz kanpo konpontzeko zerbitzu publikoa eskaintzen du.

Iragankorra izatea ez da beharrezkoa eta funts gabeko bilakatzen da, lan-kontratuko langileak, lan-legedi erkidea bete behar dutenak, aipatzen baititu. Izan ere, naturalki Lan Harremanetarako Kontseiluaren aginpidekoak dira.

16/18 IRIZPENA, “Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Araudia onartzeko Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Sozial Garapeneko Batzordea

Sarrera-data: 2018ko urriak 23

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez egokia da

“Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzko araudia onartzen duen dekretu-proiektua” izapidetzea. Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak aurkeztu du eta irizpena 2018ko azaroaren 15ean onartu da.

16/18 Irizpena jarraitzea: txosten hau egin denean araua onartzeke dago.

Dekretuak testu bakarrean elkartzen ditu babesletzaren eta fundazioen erregistroaren araudiak, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen legeak (ekainaren 2ko 9/2016 Legea) agintzen duen bezala. EGABk positiboki balioetsi du araubidezko garapenaren ekimen hau. Dena den, zenbait alderdi kontuan hartu beharko liriateke, besteak beste, jarduerak egiaztatzeko espedienteari dagokiona. Legeak xedatutakoari jarraiki, halako espedienteak araudiak zehaztutako prozeduraren bitartez gauzatu behar dira; EGABk egiaztatutakoaren arabera, ordea, araupetze berezi hori Eusko Jaurlaritzak bidalitako araubidezko testuan ez da ageri. Halaber, irizpenak Babesletzaren Aholkularitza Batzordea eratzea zalantzan jartzen du. Itxuraz, eremu horretan gobernu-sail aginpidedunek egindako txostenei ez die balio erantsirik ematen. Bestetik, EGABk ohartarazitakoaren arabera, oso erraz eta malgutasunez arautzen da fundazioak merkataritza-sozietateetan parte hartzea, beraz, nahasmendu ekonomikoaren egoerak sor daitezke, fundazioek irabazi-asmorik ez dutela kontuan hartuta. Azkenik, Batzordearen ustez, garapenerako hezkuntzaren kontzeptua sartzeari komenigarria litzateke, garapenerako lankidetzarekin batera, ezinbesteko prozesua delako lankidetzarako, eta bere helburua herritarrek garapen-politika eraginkor eta kalitatezko batean parte har eta konpromisoa har dezaten lortzea delako, solidaritatearekin, gizarte-justiziarekin eta giza eskubideekin zerikusia duten eskumenak, balioak eta jarrerak ezagutzat eta garatuz.

2018. urtean aurreko ekitaldietan onartutako irizpenak jarraitu ziren, urtea hastean oraindik legedia onartu gabe bazegoen.

LEGE-
PROIEKTUAK
ETA
DEKRETUAK,
EUSKAL
GOBERNUAREN
KONTSEILUAN
ONARTUTAK

2018

Apirilak 17

2/17 IRIZPENA JARRAITZEA: EAEn behi-haragiaren eta behi-haragian oinarritutako produktuen aukerako etiketatze-sistema aplikatzeko neurriak arautzeari buruzko azaroaren 21eko 235/2000 Dekretua indargabetzeko dekretu-proiektua.

{Ekonomia Garapen eta Azpiegitura Sailak proposatu ostean, Batzordeak irizpena egin eta 2017ko ekainaren 5eko Osoko Bilkuraren saioan berretsi zuen. EHAA 2018ko apirilaren 24an argitaratu zen.

Arau honen helburua, European izandako arau-aldaketak betez, EAEn eremuan behi-haragiaren eta behi-haragian oinarritutako produktuen aukerako etiketatze-sistema arautzen zuen 235/2000 Dekretua indargabetzea zen.

Onartutako testua Batzordeak irizpena egindakoarekin bat dator. Bere irizpenean, EGABk ekimena positiboki balioetsi zuen, aldaketa-proposamenik egin gabe.

Maiatzak 15

6/17 IRIZPENA JARRAITZEA: elikadura-enpresa eta -establezimenduen komunikazio eta osasun-baimenaren araubidea arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elikadura Establezimenduen Erregistroa (EAEEEE) sortzeko dekretu-proiektua.

Osasun Sailak proposatu ostean, Batzordeak irizpena egin eta 2017ko azaroaren 6ko Osoko Bilkuraren saioan berretsi zuen. Gero, EHAA maiatzaren 23an argitaratu zen.

Arauren helburua osasun publikoa eta pertsonen eskubideak babestea da eta, horretarako, elikadura-jarduerak eta -establezimenduak kontrolatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan badihardute. Hala, elikadura-enpresa eta -establezimenduen osasun-baimen, jarduera hasi aurreko komunikazio eta datuen aldatetari buruzko komunikazioaren prozedura arautzen da, erregistro-inskribapena deuseztatzea barne, jarduera EAEn badute. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Elikadura Establezimendu eta Enpresen Erkidegoko Erregistroa sortzen da.

Laburbilduz, onartutako testuak aldaketa gutxi izan dituela esan daiteke eta edukiaren funtsa ez dute aldatzen. Bere irizpenean, EGABk positiboki balioztatzen du ekimena, baina zenbait gogoeta orokor eta berezi egin ditu eta gehienak kontuan hartu dira.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

2017AN EAEKO EKONOMIA ETA GIZARTE EGOERARI BURUZKO MEMORIA



Euskadiko Autonomia Erkidegoaren egoera ekonomikoari eta sozialari buruzko 2017ko memoria aho batez onetsi zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak 2018ko ekainaren 29an, Batzordearen arautegian ezarritako epeen barruan.

Agiriak laburpen osatu bat dakar, eta hainbat iturri ofizialetatik jasotako aldagai sozioekonomiko nagusiak bildu ditu; halaber, azaldutako datuetan oinarrituz aztertu, eztabaidatu eta iritzi bat lortu ondoren batzordeko kideek egindako balorazioak eta oharrak ere batu ditu.

“2017ko Memoria Sozioekonomikoak” hainbat atal ditu, eta egoera ekonomikoa, lan merkatua, euskal herritarren bizi-kalitatea, hezkuntza edo gizarte babesa bezalako gaiak aztertu ditu eta horien gaineko hausnarketa jaso du.

Jarduera ekonomikoa gehitzea

2017. urtean euskal jarduera ekonomikoa hirugarren urtez ondoz ondo hazi zen eta enplegua gehitzean izan zuen isla. Nahiz eta positiboa izan, EGABk funtsezkotzat jotzen dituen zenbait egiturazko alderdi azpimarratu nahi ditu.


Besteak beste, Euskadiren energia-mendekotasuna aipatu nahi du. Espainiako eta Europako batez bestekoaren gainean kokatzen da eta petrolioaren prezioa igotzeak larriagotzen du arazoa. EGAB energia-eredua aldatzearen aldekoa da. Mendekotasunak txikiagoa eta ingurumen-iraunkortasunak handiagoa izan behar du, energiaren aurrezki eta eraginkortasuna indartzeko.

Beste oinarrizko alderdi bat zerbitzuen sektoreak duen konposizioa da. Usadiozko sektoreetan du funtsa: ostalaritza, turismoa, garraioa. Ildo horri utsiz, EGABk sortzen ari diren adarrak sendotzea gomendatzen du. Sormen eta kultura, osasun edo hezkuntzarekin zerikusia dute, hezkuntza ekonomiko handigorantz eta kalitate handiagoko enplegurantz baitoaz.

Enpresa-dimentsioa beste hobekuntza-eremu bat da, urritasunarengatik berrikuntzak eta nazioartekotze-prozesuak ezin baitira nahikoa bermean garatu. EGABk azpimarratzen du enpresen arteko kooperazio- eta lankidetzaz-estrategiak areagotu eta finkatu behar direla.

Dimentsioa da, hain zuzen, I+G+b-ri negatiboki eragiten dion arazo bat. EAE Espainiako eskualdeen buruan egon arren, oraindik puntako herrialdeetatik urrun dago, beraz, gardentasuna, arrisku berriztatzaileak onartzea eta berrikuntza teknologikoa nabarmendu behar dira.

GRÁFICO III.1.3. TASA DE OCUPACIÓN EN LA CAPV POR SEXO, EDAD Y TERRITORIO. IV TRIMESTRES.



Fuente: ELSTAT. PRA.

Pág. 138 Memoria Socioeconómica 2017

Okupazioa eta langabezia

Batera hartuta, 2017. urtean Euskadiko lan-merkatuaren adierazle gehienek aurrera egin zuten, enplegua sortu zen eta langabezia murriztu zen sektore eta adin guztietan, baita bi sexuetan ere. Iraupen luzeko langabezia (urtebete gainditzen duena) bi hamarren murriztu zen, baina oraindik langabetuen erdiari baino gehiagori eragiten dio, beraz, horiek lan-merkatutik baztertzeko arriskua dute.

Kontratazio mugagabea aldi baterako kontratazioa baino biziago hazi zen hirugarren urtez ondoz zen eta txandaketa arinki murriztu ere bai. Behin-behinekotasunaren tasek, ordea, oso altuak izaten jarraitu zuten eta, nagusiki, emakumeei eragin zien. Halaber, beraiek jasaten dute ordainsarien tartea. Horrez gain, nahi ez den denbora partzalean enpleguak bereziki eragiten die. Langabezia, batik bat, emakumeengan eta 55 urtetik gorako pertsonengan antzeman da. EGABren iritziz, alderdi horiek aldeko emaitzak ñabartzen dituzte eta gure Erkidegoko ekonomia- eta gizarte-eragile guztiek arretaz aztertu behar dituzte.

{Ikasketa-maila eta enplegua lortzearen arteko erlazioari dagokionez, EGABk bere azkeneko ekimen propioko azterlanari (EAEn gaztediaren enplegagarritasuna eta lan-merkatuan sartzea) erreparatu dio. Aipatu azterketa joan den urtean argitaratu zen eta, besteak beste, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten gazteentzako politika bereziak behar direla azpimarratzen du.

Lan-merkatuaren eremuan, EGABren ustez, lan-arriskuak zorrotasunez prebenitzea garrantzitsua da ezbehar-tasaren eragina hobetzeko (2017. urtean berriz gora egin zuen, istripu hilgarrien kasuan izan ezik) eta sindikatuek nahiz patronalak 2017ko urtarrilean sinatutako negoziazio kolektiboaren egitura-akordioari aipamen berezia egiten dio.

Demografi egoera kezagarria

EAEn udal-eroldaren datuek (2017ko urtarrila) baieztatzen dute beste urte batez demografiaren etenaldia.

Laugarren urtez ondoz ondo, jaiotzen eta heriotzen arteko desberdintasuna negatiboa izan zen. Hala ere, hirugarren urtez atzerriko biztanleak igo ziren eta saldo begetatiboa orekatu zuten.

Migrazio-mugimenduen eremuan, EGABk goi-mailako tituluak dituzten pertsonak EAetik irten direla aipatzen du, beraz, fenomeno horri arreta eskaini beharko zaio.

Batzordeak ohartarazitakoaren arabera, alterazio demografikoak biziagotzeak populazioaren egiturari buruzko konposizio kualitatiboa eta bere dinamismoaren oinarriak alda litzake.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Bizi-baldintzak

EAEn bizi-baldintzen adierazlerik esangarrienen joan den urtean aldeko bilakaera izan zuten.

Ildo horri jarraiki, AROPE tasa (pobrezia-eta aztertze-arriskua duen biztanleria) 1,7 puntu jaitsi zen eta eremu guztietan hobera egin zuen. Halaber, batez besteko errentak igo ziren, bai etxebizitzako, bai biztanleko, eta beste adierazle batzuek behera egin zuten, hala nola, energia-pobrezia edo hilaren amaierara iristeko zailtasunek.

Aldagaien multzoa EAEn aldeko posizioan mantendu zen Estatu eta Europaren testuinguruan. Hala eta guztiz ere, EGABk gogorazitakoari jarraiki, hobekuntzek oraindik ez dute krisiaren ondorioz galdutako ongizate guztia berreskuratu eta adierazleek ez diete 2008. urteko kopuruei eutsi.

Gainera, familia-unitate motetan gertatzen ari diren aldaketak kontuan hartu behar dira eta eskaintzak nahikoa zabala izan behar du familientzako zerbitzu eta ekipamenduetan. Horri aginte publikoek lehenetsuneko arreta eman behar diote.

Gizarte-babesa

EAEn gizarte-babesaren sistema europar herrialde nagusienetakoekin alderatzen badugu, maila onargarria da eta aldekoa Estatuari erreparatzen badiogu.

2017. urtean lehenengoz diru-sarrerak bermatzeko sisteman (gure ongizate-sistema bermatzeko oinarritzko tresna) gastua murriztu zen eta DSBEren (sistemaren prestazio nagusia) hartzaile gutxiago izan zen.

Gizarte Segurantzako pentsioen sistemari dagokionez, EAEn defizit-saldoaren goranzko joerak kezkatzen du, beraz, administrazioek eta gizarte-eragileek eusteko mekanismoei buruz eztabaidatu behar dute.

Mendekotasunari buruz, EGABk teknologia berrietan inbertsioa eta ikerketa bultzatzea gomendatzen du, mendekotasunak dituzten pertsonen arreta hobea eta eraginkorragoa eskaintzeko aurrerapausoak eman daitezkeen aukera izugarriak eskura jartzeko baititu.

Hezkuntza

EAEk berriz ere emaitza onak ditu hezkuntza-adierazle batzuetan: hezkuntza ez-unibertsitarioa, eskolatasak, eskolaren uzte-tasa; dena den, Batzordeak ohartarazitakoaren arabera, generoaren arabera banaketa garrantzitsua dago, bai lanbide heziketan, baita unibertsitate-ikasketetan ere.

EGABren iritziz, balioetan hezi behar da eta sexismoa zalantzan jarri ere bai adin goiztiarretatik. Horren harira, ezinbestekoa da sexuen arteko berdintasuna sustatzea.

{Lanbide heziketan matrikulazioak gora egin du, bereziki, lan-merkatuak eskatzen dituen lanbide-familietan, beraz, adar horiek indartzeko ahalegina mantendu behar da.



Osasuna eta osasun-sistema

Aurreko urteetan bezala, euskal biztanleriak osasun onaren adierazleak ditu eta hoberantz egiten doaz.

Bizi-itxaropena igotzen ari da eta, ondorioz, gastu soziosanitarioa, baita mendekotasunari buruzkoa ere zabaldu da. Hori abiapuntutzat hartuta, EGABk prebentzio eta autonomia pertsonalari buruz herritarren kontzientziazioa bitztea gomendatzen du. Halaber, lan-bizia eta familiarena bateratzearen aldera neurriak hobetu behar dira.

Batzordeak alkohola kontsumitzeari buruzko ohiturez ohartarazten du, EAEk baitu Estatuko bigarren tasarik handiena. Autonomia Erkidegoaren barruan, gizonek ohitura gehiago dute, nahiz eta euskal emakumeek Estatuaren mailan kontsumorik handiena duten.


Etxebizitza

EGABren iritziz, etxebizitzaren arloan ekimen publikoak dauden etxebizitzak birgaitzearen aldeko apustua mantendu behar du. Gainera, merkatuan alokairu babestuaren eskaintza handiagoa jarri beharko luke.

Hala, etxebizitza-kopuru iraunkorra behar da, batez ere, alokairuan, etxebizitza huts gehiago lortzearekin batera.

EGABren ustez, gazteen kasuan alokairuaren politikak indartzea beharrezkoa da, emantzipatzeko beharrak hor oztopoa aurkitzen baitu. Hala azpimarratu zen arestian aipatu dugun EGABren ekimen propioko azterlanean.

GRÁFICO V.4.10. EVOLUCIÓN DEL TIPO DE VIVIENDA SOLICITADA POR LAS PERSONAS INSCRITAS EN ETXEBIDE.



Fuente: ETXEBIDE. GOBIERNO VASCO.

* A partir de 2013 se debe escoger entre alquiler y compra.

Pág. 327 Memoria Socioeconómica 2017

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

AZTERLANAK ETA TXOSTENAK EGITEA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen zeregin bat da, besteak beste, ekimen propioko txostenak egitea.

EKIMEN PROPIOKO AZTERLANA:

“EAEko gazteriaren enplegarritasuna eta lan-merkatuan sartzera Europako eskualdeen arteko ikuspegi konparatuaren arabera”

Azterlana 2018ko lehenengo hilabeteetan amaitu zen, eztabaida biziaren ondoren. Adostasunez, gomendio eta gogoeten multzoa lortu zen.

Gogora dezagun azterlanaren [HELBURUA](#):

Euskal gazteriaren oraingo eta etorkizuneko enplegarritasuna eta lan-merkatuan sartzeko aukera aztertzea Europako eskualdeen arteko ikuspegi konparatuaren arabera.

LAU ONDORIO OROKOR:

Gazteen heterogeneotasuna

Argi eta garbi bi adin-azpitalde bereizten dira lan-merkatuan duten posizio desberdinarengatik: 16tik 24 urterakoak, gehienak ikasleak eta oso jarduera-tasa txikiarekin; eta 25 urtetik 34 urtera bitartekoak; azkenekoen langabezia-tasak (% 17,8) lan-merkatura iristeko zailtasunak nabarmentzen ditu. Lan-merkatuan sartzeak hautatutako ikasketekin harreman estua du (ikasketa teknikoetan eta osasunari buruzkoetan handiagoa) eta konplexuagoa da behe-mailako prestakuntza izanez gero. Lan-kontratu nagusia aldi baterako kontratua da eta, gainera, lanaldi partziala gorantz doa. Txostenak adin txikiena duen azpitaldearen prestakuntzari eta orientazioari buruzko gaiak berriz planteatzea proposatzen du, adin gehiago dutenen lan-baldintzak hobetzearekin batera.

Emakume gaztearen egoera berezia

Emakume gazteek egoera berezia dute, langabezia-tasa handiagoak eta jarduerari buruzko txikiagoak baitituzte. Lanaldi partzialean ere, lan-ratioa handiagoa da. Ordainsari txikiagoa dute eta emakumeen partaidetza baxua da arlo teknikoetan eta oso altua pertsonak zaindu eta osasunaren eremuan.

EGABren iritziz, ezinbestekoa da kultur aldaketa sustatzea, emakume gazteek lanbide-familiei eta unibertsitate-ikasketei begira lan-merkatuan baldintza hobetan sartzeko aukera gehiago dituztenak hauta ditzaten. Gainera, lanbide-garapena bultzatzen duten ekintzak gauzatuko dira.

Belaunaldia ordezkatzeko zailtasunak

Azterlanak beste arazo bat agerian uzten du, hain zuzen, belaunaldia ordezkatzeko zailtasunak. Egoera hori mehatxu bat da, baina, aldi berean, aukerak eskaintzen ditu.

Enpresek, gizarte-eragileek eta erakundeek langileen adina kudeatzeko neurriak hartzea proposatzen du EGABk, txandaketa ordenatua bermatzeko, gazteak lan-merkatuan egonkortasun- eta kalitate-baldintzetan sartzeaz gain.

Globalizazioa, digitalizazioa eta zahartzea elkartzea

Txostenak beste fenomeno kezkarriaz ohartarazten du: oso erritmo bizkorrean denboran elkartuko dira globalizazioa, 4.0 iraultza eta euskal biztanleen zahartzea. Azterlanak enpleguaren paradigman aldaketa aztertzen du. Agertokia asmatzea ez da erraza, enpleguan ondore garbia, positiboa edo negatiboa, ezezaguna baita. Agertoki konplexu horretan, funtsezkoa da akordioak lortzea, nahasitako estamentu eta eragile guztiei (governua, enpresa-erakundeak, sindikatu-erakundeak eta bestelako gizarte- nahiz ekonomia-aktoreak) irekitako elkarrizketa-ingurunean. Langileen lan-babesa eta enpresen enplegu nahiz lehiakortasunaren segurtasuna kolokan jarri gabe, 4.0 industriak irekitzen dituen aukerak ez galtzea izango dute helburu.



JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Aipatu ondorio orokorrekin batera, gogoeta berezien multzoa zehazten du eta proposamen zehatzak ageri dira:

- **Orientabide akademikoa eta lan-orientabidea hobetzea;** Batxilergoa baino askoz lehenago landu behar da eta, ondorioz, orientazio-langileak prestatu eta gaitzeari garrantzi handia eman behar zaio. Ildo horri eutsiz, jarduerak bereziki emakumeen arazo berezian eragingo dute.
- **Gehiegi prestatuak egotea, ogibide maila urriak izatea eta “bartzertze ondorea”.** Txostenak azpimarratu-takoaren arabera, postuari dagokion prestakuntza baino goi mailagokoa duten pertsona gazteen enplegu urriak hezkuntza maila txikiagoa duten horien aukeren gainean ondorio negatiboak ditu eta “bartzertze ondorea” sortzen da.
- **Gaitasun tekniko-digitaletan zerikusia duten unibertsitate tituluak eta familia profesionalak.** Azterlanak hezkuntza erakundeen, enpresa erakundeen, sindikatuen eta beste gizarte eragile batzuen artean koopera-zio sare egonkorrak zehaztea proposatzen du, ikasketen egokitasuna etengabe ebaluatu eta 4.0 tes-tuinguruaren prestakuntza behar berrietara moldatzeko.
- **Prestakuntza duala eta curriculum praktikak.** EGABk defendatutakoarekin bat, prestakuntza dual eragin-korra eta praktika nahiz beken sistema duina oinarritzeko dira pertsona gazteek gaitasunak eta lan espe-rientzia lortzeko. Aurrekoaren harira, ezinbestekoa da enpresak prestakuntza planetan nahastean itxa-ropen zehatzak izatea eta praktika denboraldiak ohiko enpleguak ordezkatu arte ez luzatzea.
- **Errelebo kontratua bultzatzea.** Batzordearen iritziz, errelebo kontratuak kalitatezko enplegua sortzen du, pertsona gazteentzat gainerako langileentzat bezalako baldintzekin eta, gainera, egonkortasuna es-kaintzen du.
- **Garapen teknologikoa eta intimitatearen nahiz bizi pertsonalaren babesa bateratzea.** Lan denbora eta espazioaren eta bizi pertsonalari dagokionaren artean desberdintasunik eza 4.0 iraultzaren inpaktu nega-tibo bat da, baina, aldi berean, bestelako ondore positiboak ditu: lanorduekiko autonomia handiagoa izatea, joan-etorriak eta horri atxikitako estresa murriztea... Europar EGABren gomendioen ildotik, Euska-diko EGABren txostena elkarrizketa konstruktiboaren aldekoa da, intimitatea eta bizi pertsonala babes-tuak daudela bermatzeko.
- **Talentuaren konposizioa eta dinamika.** Batzordeak antzemandakoaren arabera, talentuak geldiarazi eta erakartzeko eredu adostua behar da eta irteten diren pertsonen kontabilitatea eta trazabilitatea hobet-zeko tresnez hornitu behar zaio. Helburua etorkizunean itzul daitezen sustatzea da.

- **Lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten gazteentzat politika bereziak.** Azterlanean landutako europar eskualdeen esperientziak kontuan hartzen baditugu, lan merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten gazteentzat politika bereziak bizikidetzen ari dira, behin betiko lan merkatutik kanpo gelditzeko arriskua baitute. Kapitulu honetan, EGABren ustez funtsezkoa da immigrazioaren fenomenoari erreparatzea, Euskadiren lan egiturari oinarrizko ekarpena egiten baitiote. Halaber, gazte immigranteen gizarte errealitate berriak kontuan hartu behar dira.
- **Inplementatutako programak jarraitu eta ebaluatzeko estatistikak eta adierazleak.** 4.0 iraultzak adierazle berriak eta estatistika serie berriak eskatzen ditu, nahiz eta gaur egun eskura ez izan; adibidez ohiz kanpoko enplegu modalitateei buruzko estatistikak. Izan ere, etorkizun hurbilean funtsezko bihurtuko dira. Horregatik, digitalizazioaren ondorioz sortuko diren aldaketak kontuan hartuta, adierazleak eta estatistika serieak garatu eta berriz pentsatzea proposatzen du.

AZKEN ONDORIO ETA GOMENDIO modura, EGAB ondorengoaren aldekoa da:

herrialdeko ituna lortu behar da **“politikak diseinatu eta inplementatzeko eta, horiei esker, 4.0 testuinguruan gazteen nahiz, oro har, euskal biztanleen enplegarritasuna hobetzen laguntzeko; itunaren oinarriak nahasitako eragile guztien adostasuna eta erantzukizun partekatua izango dira”**.



JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

EUROPAR KOOPERAZIOAREN EREMUAN EGINDAKO TXOSTENAK

Constituyen Informes de iniciativa propia desarrollados en cooperación con otros Consejos Económicos y Sociales, bien en un ámbito transfronterizo, bien en un ámbito más amplio, de carácter transnacional. Estos informes abordan a la escala geográfica e institucional adecuada las temáticas cuyas repercusiones o problemáticas inciden sobre la CAPV, pero, a su vez, trascienden, también, de su ámbito político-territorial, permitiendo dirigir las consideraciones y recomendaciones resultantes al ámbito institucional decisorio pertinente, particularmente al eurorregional y al europeo.

EKINTZA-PLAN ATLANDIKOA ERDIAN EBALUATZEKO 2018KO OTSAILAREN 23KO EUROPAR BATZORDEAREN AGIRIARI BURUZ SARE TRANSNAZIONAL ATLANTIKOAREN (STA) IRITZIA

Lan hau garatu da:

fatxada atlantikoko eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin eta pareko erakundeekin lankidetzan, STA-ATN ekonomia- eta gizarte-eragileen Sare Transnazional Atlantikoaren barruan elkartuak badaude. Horretan Euskadiko EGAB eta CESER NouvelleAquitaine izan dira hizlariak.

Bai mugaz haraindiko eremuan, bai arlo zabalagoan, nazioez gaindi, beste ekonomia eta gizarte arazoetarako batzorde batzuekin lankidetzan garatutako ekimen propioiko txostenak sartuak daude. Txosten hauek geografia edo erakunde maila egokian gaiak lantzen dituzte eta EAEn eragiten dute ala ondorioak antzematen dira, baina, aldi berean, bere politika eta lurralde eremua gainditzen dute. Ildo horri eutsiz, gogoetak eta gomendioak erabakitzen duten erakundeetara (bereziki, euroeskualdeetakora eta europarrera) bidera daitezke.



STAk biziki landu du europar estrategia atlantiko, erantsi beharreko edukiri buruz 2010. urtean Europar Batzordeak abiarazitako jendaurreko kontsulta-prozesutik abiatuta, Europar Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpenei egindako ekarpenetatik pasata, ekintza plana inplementatzeko arrakasta-baldintzei buruz 2015. eta 2017. urteetan egindako txostenetara arte. Lehenengoak inplementazioa abian jartzeko faseari erreparatu zion eta bigarrenak ekintza planaren aplikazioa tartean ebaluatu eta ikuskatzeko prozesuan laguntzea zuen helburu.

Horregatik, STA pozik dago Europar Batzordeko DG MAREk egindako ahaleginarekin. Nolanahi ere, Estrategia Atlantikoa ebaluatu eta ikuskatzeari buruz otsailaren 23ko agiria egiteko eskualde atlantikoetako eragileen datuak zituen eta, batez ere, 2017ko txostenaren edukia Europar Batzordeak bere analisis egiteko kontuan hartu du, agiriaren atarian aipatzen baita. STAk ekintza-plana inplementatzean sortutako arazoan azterketa eta Batzordearen agirian zerrendatzen direnak bat datoz. Ahulezia nagusiei buruzko ondorioen atalean, ordea, ez da berdina gertatzen. Oso urritasun garrantzitsuak antzematen dira eta, horregatik, STAk horietan oinarritzen du bere iritzi-agiria.

Oso adierazgarria da Batzordeak Estrategia Atlantikoaren lehenengo funtzionamendu aldian ahulezia garrantzitsuen artean **finantzazioa** ez azpimarratzea; are gehiago, Batzordearen ebaluazioak berak faktore horrek planaren interesa eta proiektuen gaineko eragina hondatu duela iradoki duenean. STArentzat proiektuen finantzaketa erabat funtsezkoa da eta hobetzea ekintza-plana ikuskatzean ardatz bihurtu behar du. Xede horrez, STAren iritziak proposamen zehatzak planteatzen ditu.

Planaren aurrerapausoak eta arrakasta antzemateko **jarraipen- eta finantzaketa-esparrurik ez egotea**, Batzordeak adierazten duen bezala, ahulezia bat da eta premiaz zuzendu behar da. Huts hori, ordea, ez da bakarrik eragin-adierazle neurgarriak eta helburu kuantitatiboak edo kualitatiboak finkatuta estaltzen. Aldez aurretik ezinbestekoa da Estrategia Atlantikoaren Ekintza Planaren ondoriozko proiektuak identifikatzeko mekanismoak zehaztea, nahiz eta Batzordearen agiriak ahaztu.

Gobernamenduari dagokionez, STAk indartzeko dokumentuaren erabakigarritasuna txalotzen du. Muskuludun gobernamendua, koordinatua eta konprometitua, egun Estrategia Atlantikoari eragiten dioten arazo asko eraginkortasunez ebazteko giltza da.

Aktore aipagarri guztien inplikazioak lehentasunezkoa izan behar du egiaz eta gobernamenduaren eskeman eskualde atlantikoetako ordezkariak sartzeari oinarritzeko ere bai, zuzeneko inplikazioa lortu eta lursailean berreraizteko, baita estrategiaren gaitasun operatiboa areagotzeko ere. Dena den, STAk ohartarazitakoaren arabera, horrek ezin du gobernamendu-mekanismoaren ikuspegi operatiboaren kalterako izan. Lehentasunezko arloetan kontsultarako eztabaida-guneak edo lantaldeak zehaztea nahitaezko urratsa da eta STAk egindako proposamenekin lotu daiteke. Makroeskualeen estrategietan dauden mekanismoen bidez ekintzak eta proiektuak bultzatzeko gaitasuna garatu behar da eta proiektu enblematikoak sustatu behar dira. Halaber, Batzordeari gogorarazi zaio gobernamenduaren ahalegina eremu guztietan egin behar dela. Aurrekoari eutsiz, esparru politikoak bereziko garrantzia du konpromiso- eta inplikazio-dosiez blaitzeko.

Azkenik, komunikazioari dagokionez, hobetzea Batzordeari eta Estatu kideei nahiz eskualde atlantikoei dagokie, Estrategia zabalduta eta ulertarazteko ekarpen garrantzitsua egin baitezakete

[Iritzia amaitzeko](#) epe labur eta luzean Estrategia Atlantikoak ondo funtzionatzeko jarduerak zehazten dira.



Réseau Transnational Atlantique
Red Transnacional Atlántica
Rede Transnacional Atlântica
Atlantic Transnational Network

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

ORGANO ELKARGOKIDEEN BILERAK

OSOKO BILKURA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak **hamabi saio** egin zituen, horietatik zortzi ohiz kanpokoak. Horietan hamasei irizpen, 2017ko jarduera memoria, 2017ko EAEko memoria sozioekonomikoa, 2017. urteko kontuak eta 2019. urteko aurrekontuak onartu ziren.

BATZORDE IRAUNKORRA

2018. urtean Batzorde Iraunkorra **bost aldiz** bildu zen. Besteak beste, honako gaiak landu ziren: 2017ko jardueren txostena, 2017ko memoria sozioekonomikoa, 2017. urteko kontuak eta 2019. urteko aurrekontuak, 2017ko auditoriaren txostena eta aurrekontua hiruhilekoan gauzatzeari buruzko aurrekontu-kontrola.

SOZIAL GARAPENERAKO BATZORDEA

Sozial
Garapenerako
Batzordea 2018.
urtean hamar
aldiz bildu zen.

Urtarrilak 10

Egindako txostenean, lehenik eta behin, 5/2017 Irizpenaren jarraipen-txostena, irailaren 29koa, 2017-2020rako enpleguaren plan estrategikoari buruzkoa, aurkeztu zen.

Ondoren, Ama-esnearen Euskadiko Bankua sortzen duen eta norberaren semeak/alabak erabiltze eta emate aldera hori hartu, atera, prozesatu, banatu eta administratzeko baldintzak ezartzen dituen dekretu proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eskatu ostean.

Dekretu-proiektuak giza esnea dohaintzan ematearekin zerikusia duen esparru arautzailea (dohaintza, ateratzea, ebaluatzea, prozesatzea, babestea, gordetzea, banatzea eta erregistratzea) ezartzen du hurrengo printzipioetan oinarrituta: borondatezko dohaintza altruista, emailearen eta hartzaileen anonimata eta eskusiboki agindu medikoz banatutakoa, osasun-berme guztiekin. Aurreproiektuak jasotako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, aho batez, irizpen-proiektua egin zuen eta EGABren Osoko Bilkuran landu zen, 2018ko urtarrilaren 15ean aho batez onartzeko.

Martxoak 2

Bileran, lehenik eta behin, hurrengo jarraipen-txostenak aurkeztu ziren:

- 4/2017 Irizpena, Euskadin kokatutako osasun-zentro eta -zerbitzuetan gaixoezko segurtasun batzordeak garatzeko Osasun sailburuaren aginduari buruzkoa.
- 8/2017 Irizpena, Euskadin kokatutako osasun-zentro eta -zerbitzuen gorabeheren jakinarazpen-sistema garatzeko Osasun sailburuaren agindua.

Ondoren, seme-alabak dituzten familientzat diru-laguntzari buruzko dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eskatu ostean.

Iritziak elkar aldatu zituzten eta bertaraturakoek seme-alabak dituzten familientzat diru-laguntzei buruzko dekretuaren aldaketa-proiektuak EGABn euskal gizarteak duen arazo larri bati buruz eztabaidatzeko aukera berria irekitzen zela antzeman zuten: demografia. Eztabaidaren akordioak aurretiazko hausnarketa moduan irizpenera eramatea erabaki

zuten.

Irizpen-aurreproiektuaren mamia aztertu eta eztabaidatu, baita adostutako aldaketak sartu ondoren ere, Batzordeak aho batez onartu zuen martxoaren 7an e-postaz irizpen-proiektua eta EGABko Osoko Bilkurak landu zuenean aho batez onartu zen martxoaren 9an.

Gero, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan adinduentzako egoitza-zentroi buruzko dekretu-proiektuaren irizpen-aurreproiektua eztabaidatzeari ekin zitzaion, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eskatu ostean.

Aurreproiektuak jasotako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, aho batez, irizpen-proiektua egin zuen eta EGABren Osoko Bilkuran landu zen, 2018ko martxoaren 9an aho batez onartzeko.

Martxoak 21

Oraingoan EAEn hilotzen osasunari buruzko araudia onartzeko urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren aldaketari zegokion dekretu-proiektuaren irizpen-proiektua eztabaidatu zen, Osasun Sailak eskatu ostean.

Iritzien hartu-emanan izan eta hainbat aldaketa erabaki ondoren, bertaratutakoek aho batez onartu zuten, irizpen-proiektua martxoaren 28ko Osoko Bilkuran lantzeko. Aho batez onartu zen.

Ondoren, gizarte-larrialdiko laguntzei buruzko dekretua bigarren aldiz dekretu-proiektuaren irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eskatu ostean.

Batzordeak, aldaketarik gabe, aho batez onartu zuen eztabaidatzeko dokumentua. Beraz, irizpen-proiektua ildo beretik formulatu zen. Osoko Bilkurak martxoaren 28ko saioan izan zuen aztergai eta aho batez onartu zen.

Azkenik, VII. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planari buruzko irizpen-aurreproiektua aztertu eta eztabaidatu zen. Emakundek egina, planak 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako denak, xedatutako legeko aurreikuspenari erantzuten dio. Horren arabera, legealdi bakoitzaren hasieran emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal aginte publikoen jardura bidera dadin plan orokorra onartu behar da, orokorrean eta koordinatuta esku-hartze ildoak eta gidalerroak zehazteko. Aurreproiektua laburki eztabaidatu ostean, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, Osoko Bilkurak azter zezan.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Sozial
Garapeneko
Batzordea 2018.
urtean hamar
aldiz bildu zen

- Apirilak 9** Bileran Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzeko dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak eskatu ostean.
- Aurreproiektuak jasotako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, aho batez, irizpen-proiektua egin zuen eta EGABren Osoko Bilkuran landu zen, 2018ko apirilaren 13an aho batez onartzeko.
- Ekainak 19** Bileran Jon Azkue Lan eta Gizarte Segurtasun sailburuordearen eta Jokin Diaz Ekonomia Sozialeko zuzendariaren agerraldia izan zen. José Luis Aramendiak, saileko aholkulariak, eta Alfredo Ispizuak, lege-aholkularitzaren arduradunak, lagundu zieten. Euskadiko kooperatibei buruzko aurreproiektua aurkeztu zuten.
- Ekainak 27** Bileran, lehenik eta behin, gizarte-larrialdiko laguntzei buruzko dekretuaren bigarren aldatetaren proiektuaren inguruko 8/2018 Irizpenaren jarraipen-txostena aurkeztu zen. Irizpenak dekretu-proiektuarekiko aldatetarik ez zuenez izan, jarraipena dekretua onesteari egin zaio.
- Gero, jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerei buruzko legearen garapen-araudia onartzeko dekretu-proiektuaren irizpen-aurreproiektua eztabaidatzeari ekin zitzaion, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eskatu ostean.
- Iritzien hartu-emanak izan eta hainbat aldateta erabaki ondoren, bertaratutakoek aho batez onartu zuten, irizpen-proiektua uztailaren 5eko Osoko Bilkuran lantzeko. Aho batez onartu zen.
- Ondoren, Euskadiko kooperatibei buruzko lege-aurreproiektuaren irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak eskatu zuelako.
- Aurreproiektuak jasotako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, gehiengoz, irizpen-proiektua egin zuen eta EGABren Osoko Bilkuran landu zen, 2018ko ekainaren 27an onartzeko.
- Uztailak 12** Bilerak euskal enplegu publikoaren lege-aurreproiektuari buruzko irizpen-aurreproiektuaren azterketa eta eztabaida landu zuen. Hori Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak egin da, Euskadin enplegu publikoa antolatu, lege-araubidea definitu eta kudeaketa-tresnak garatzeko.
- Irizpen-proiektua oso zabala zenez, bilerak gogoeta orokorren zatia aztertu zuen eta gogoeta berezietan buruzko eztabaida uztailaren 19ko bilera berrirako utzi zen.
- Saioa gogoeta orokor ia guztietan adostasuna lortuz amaitu zen. Salbuespena gai zehatzak izan diren, hausnarketa-denbora eskatzen zutelako.

Uztailak 19

Saioan Euskal Autonomia Erkidegora adingabe atzerritarrak aldi baterako etortzeari buruzko dekretu-proiektuaren irizpen-proiektua eztabaidatu zen, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eskatu ostean.

Aurreproiektuak jasotako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, aho batez, irizpen-proiektua egin zuen eta EGABren Osoko Bilkuran landu zen, 2018ko uztailaren 26an aho batez onartzeko.

Ondoren, euskal enplegu publikoari buruzko aurreproiektuaren inguruko irizpen-aurreproiektuaren azterketa eta eztabaidari berriz eutsi zitzaion. Aurreko bileran aztertzeke gelditu ziren zatiak landu zituzten. Bileraren ondorioz, gogoeta orokorren atalean erabakitzeke gelditu ziren alderdiak itxi ziren eta gogoeta berezien atal osoa adostu zen. Hala, Osoko Bilkurak lantzeko irizpen-proiektua egin zen.

Azaroak 12

Bileran Euskal Herriko fundazioei buruzko araudia onartzeko dekretu-proiektuaren irizpen-aurreproiektua aztertzeari ekin zitzaion, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eskatu zuelako.

Iritziak elkar aldatu ondoren, hainbat aldaketa-akordio lortu zen. Beraz, irizpen-aurreproiektuaren bertsio berria idatzi behar izan zen.

Idazkaritza Teknikoak bigarren bertsioa Batzordeari bidali zion eta aldaketa-iradokizunak bidaltzeko epea ireki zen. Aldaketa-iradokizun batzuk jaso ziren eta batzordekideek telematikoki onartu zituzten azaroaren 13an, hortaz, irizpen-proiektua azaroaren 15eko Osoko Bilkuran landu zen eta aho batez onartu zuten.

Abernduak 19

Bileran, lehenik eta behin, hurrengo jarraipen-txostenak aurkeztu ziren:

- 4/2018 Irizpen Proiektua, seme-alabak dituzten familientzat diru-laguntzei buruzko dekretuaren aldaketa-proiektuaren ingurukoa.
- 5/2018 Irizpena, erabilera turistikorako etxebizitza eta etxebizitza partikularretako gelen dekretu-proiektuari buruzkoa.
- 7/18 Irizpena, 202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen osasunari buruzko araudia, aldatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.

Ondoren, bizian zehar ikaskuntza-jardueretarako laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskatu baitzuen.

Iritziak elkar aldatu ondoren, zenbait aldaketa erabaki zen. Aldaketak sartu zirenean, irizpen-proiektua Batzordeak aho batez onartu zuen posta elektronikoz abernduaren 20an eta EGABren Osoko Bilkurara helarazi zen, 2019ko urtarrilaren 7ko saioan berresteko.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

GARAPEN EKONOMIKOKO BATZORDEA

Garapen
Ekonomikoko
Batzordea 2018.
urtean hirutan
bildu zen

Otsailak 8

Lehenik eta behin, hurrengo irizpenei buruzko jarraipen-txostenak aurkeztu eta aztertu ziren:

- 1/2017 Irizpena, Bideratu Berria programa arautzen duen agindu-proiektuari buruzkoa.
- 3/2017 Irizpena, "BasqueIndustry 4.0" 2017-2020rako industrializazio-planari buruzkoa.
- 7/2017 Irizpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarearen konposizioa aldatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuak dauden adinduentzako egoitzetan farmazia-zerbitzu eta sendagaien gordetegiei buruzko dekretu-proiektuaren irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen, Osasun Sailak aurkeztu ostean.

Oharrak eta proposamenak aztertu eta eztabaidatu ziren eta bilera Osoko Bilkurak lantzeko irizpen-proiektua egitearekin amaitu zen.

Martxoak 12

Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikinen azterketa teknikoak eta azterketa teknikoen erregistroa arautzeko dekretu-proiektuaren irizpen-aurreproiektua aztertu eta eztabaidatzeari ekin zitzaion. Hori Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egina da.

Dekretu-proiektuak etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 52. artikulua garatzen du. Horren arabera, eraikinen azterketa teknikoak bizitegi-erabilera duten eraikinek legez xedatutako kalitate-eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu eta ziurtatzeko tresna da. Horrez gain, azterketa horien erregistroa sortzen da. Aztergai zuten testua hainbat puntutan aldatu zen eta Osoko Bilkurak lantzeko irizpen-proiektuaren akordiora iritsi ziren.

Gero, erabilera turistikorako etxebizitza eta etxebizitza partikularretako gelen dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen.

Aurreproiektuak jasotako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, aho batez, irizpen-proiektua egin zuen eta EGABren Osoko Bilkuran landu zen, martxoaren 19an aho batez onartzeko.

Apirilak 26

Bileran Euskal Autonomia Erkidegoan ibilgailuen hornidurarako arretarik ez duten instalazioek bete behar dituzten baldintzen inguruko dekretu-proiektuaren irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen.

Lan-saioa Osoko Bilkurak lantzeko irizpen-proiektua eginda amaitu zen.

MEMORIA SOZIOEKONOMIKOAREN BATZORDEA

Memoria
Sozioekonomikoa
ren Batzordea
2018. urtean
bederatzi aldiz
elkartu zen

Otsailak 16	Saioaren helburua hurrengo kapituluetan aldaketak eztabaidatu eta onartzea izan zen: demografia, osasuna eta osasun-sistema, baita jarduera arautzailea ere.
Martxoak 9	Bizi-baldintza eta ingurune naturalaren kapituluei buruzko aldaketak eztabaidatu eta onartu ziren.
Apirilak 11	Produkzio-azpiegituren eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren kapituluaren inguruko aldaketak eztabaidatu eta onartu ziren.
Apirilak 27	Lehenik eta behin, memoria jendaurrean aurkezteko ekitaldia antolatzen hasia zela jakinarazi zen. Jada Daniel Innerarity irakaslearekin harremanetan zeuden, gobernamentuari buruzko solasaldian parte hartzeko. Gero, “abagune ekonomikoa” eta “lan-merkatua” kapituluetan aldaketak eztabaidatu eta onartzeari ekin zitzaion.
Maiatzak 17	Lehenengoz, lan-merkatuaren behin betiko bertsioa onartu zen, azkeneko aldaketak ikuskatu ostean. Gero, “Gizarte-babes” eta “Hezkuntza eta kultura” kapituluetak aldaketak eztabaidatu eta behin betiko bertsioa onartu zen.
Maiatzak 25	Batzordeak “Gizarte babes” eta “Hezkuntza eta kultura” kapituluaren behin betiko bertsioak onartu zituen, Etxebizitzari buruzko kapituluarekin batera.
Ekainak 8	Hurrengo kapituluei buruzko aldaketak eztabaidatu eta onartu ziren: sektore publikoa, kanpoko ingurune ekonomikoa eta laburpena nahiz ekonomiari buruzko gogoetak.
Ekainak 20	Batzordea 2017ko Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpena prestatzeko bildu zen.
Azaroak 14	2018ko Memoria Sozioekonomikoa egiteko lanak abian jartzea. Batzordeak aurkibidea eta lan-egutegia adostu zituen, gero, Batzordeko kide guztiei jakinarazteko. Hortaz, 2018ko abenduaren 19an Osoko Bilkuran berretsi zen.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

EUROPAR GAIETARAKO BATZORDEA

Europar
Gaietarako
Batzordeak
2018. urtean 8
bilera egin ditu.
Bi Nouvelle
Aquitaineko
CESER
erakundearekin
baterako saioan.

Urtarrilak 12

Lehenik eta behin, Euskadiko EGABk Bruselan, Europako EGABren egoitzan, antolatutako jendaurreko aurkezpenaren balantzea egin zen. Horretan, Euskadiko EGABk STAren esparruan fatxada atlantikoko bere parekideekin egindako Estrategia Atlantikoari buruzko Txostena azaldu zen. Mahai-inguruan europar erakundeetako ordezkari partaideen maila, bertaratutakoak eta txostenaren proposamenen eragina azpimarratu ziren. Bertan izan ziren batzordekideek gaiaren aparteko garrantzia nabarmendu zuten, Europar Batasunean fatxada atlantikoaren kokapena baitago jokoan.

Estrategia Atlantikoko euskal eragileei txostena zabaltzeko ekitaldia egitea landu zen. Hala, idazkaritza teknikoak jardunaldiaren zirriborroa aurkeztu zuen eta bertaratutakoak ados agertu ziren.

Azkenik, fatxada atlantikoko eskualdeetan Brexitaren eragin-eremuei buruzko lanak hastea planteatu zen. Horretarako, euskal sektore sozioekonomiko desberdinei galdeketak bidaltzea pentsatu zen. Eusko Jaurlaritzak eta Eurobaskek arloari buruz izan zezaketen informazioa aldiz aurretik egiaztatzea erabaki zen.

Ekainak 6

Lehenengoz, otsailaren 22ko Estrategia Atlantikoari buruzko Txostenaren aurkezpen-jardunaldiaren balantzea egin zen. Ondoren, batzordeburuak eta idazkari teknikoak jakinarazitakoaren arabera, txostena Kanpo Ekintzarako Idazkaritza Nagusian aurkeztu zen, baita berrikuntzari buruzko txostena Nouvelle Aquitainerekin alde bien kooperazio-eremuan ere. Halaber, maiatzaren 22an STAren Batzorde Betearazlearen bileran hartutako erabakien berri eman zen.

Ondoren, batzordekideek Ekintza Plan Atlantikoa tartean ikuskatzeko Europar Batzordearen Agiria eta STAren esparruan Euskadiko EGABk egindako Estrategia Atlantikoari buruzko Txostenaren proposamenak zer neurritan kontuan hartzen diren izan zuten aztergai, ekainaren 8an STAren lantaldeari jakinarazteko.

Amaitzeko, CESER Nouvelle Aquitainerekin alde bien kooperazio-esparruan jardueri berriz eustea aztertu zen, barne berrikuntza bukatuta baitzegoen. Mikel Ruiz batzordekideak hirugarren sektore sozialari eta Euskadi nahiz Nouvelle Aquitaineko gizarte-zerbitzuen sistemetan eraginari buruzko ezagutza eta esperientziak trukatzeko egindako proposamena onartu zen, hurrengo baterako bileran CESER erakundeari planteatzeko.

26 uztailak

Lehenik eta behin, Nouvelle Aquitaineko CESER erakundearekin irailaren 18 eta 19an egin beharreko bilera prestatu zen. Egitaraua aztertzeaz gain, Euskadiko EGABk aurkeztu behar duen lan-gaiaren proposamenean sakondu zen, zehatzago garatzeko.

Ekintza plan atlantikoa tartean ikuskatzeko Europar Batzordearen agiriari buruz iritzi-dokumentua egiteari zegokionez, STAko lantaldeak ekainaren 8an egindako bileraren ondorioak bateratu ziren. Bateratze-lan bera egin zen idatzi beharreko iritzi-dokumentuaren eskemari buruz, batzordean adostasunera iritsi arte.

Azkenik, batzordekideei urriaren 5eko Orientazio Batzordean aztergaien berri eman zitzaion. Horren harira, Batzordearen hurrengo bileretan hartuko diren erabakiak aurreratuko dira.

Irailak 19

Nouvelle Aquitaineko CESER erakundearekin baterako bilera Bordelen alde bien arteko kooperazioaren esparruan. Baterako lan-jarduera berriak eztabaidatu eta erabakitzeko, lehenengo zatian testuingurua landu zen. Euskadi-Nouvelle Aquitaine Euroeskualdearen Plan Estrategikoaren eguneratzea, orain Nafarroa sartuta, aurkeztu zuen Marc Moulin Euroeskualdeko Lurralde Kooperaziorako Europar Elkarteko zuzendariak. Horrez gain, Europar mugaz eta nazioz haraindiko lurralde-kooperazioaren programak eta, bereziki, POCTEFA programa eta horren barruan Euskadi nahiz Nouvelle Aquitainen onartutako proiektuak azaldu zituen, ordean, Ludovic Lareynie Conseil Régional de Nouvelle Aquitaineko europar kooperazioaren unitateko arduradunak.

Lan-gaiei dagokienez, gizarte-zerbitzuen sistemak eta Euskadin nahiz Nouvelle Aquitainen hirugarren sektore sozialaren zeregina elkarri ezagutzeko, bi jardunaldi egitea erabaki zen. Helburua sektoreko erakundeen artean harremanak ezartzea eta etorkizunean lankidetzak zehaztea da. Era berean, "Euskadi eta Nouvelle Aquitaineren artean prestakuntzari lotuta mugaz haraindiko mugikortasunaren aukerak eta oztopoak" gaia aukeratu zen.



Irailak 28

Bileran, lehenengoz, Bordelen bi batzarren arteko kooperazioaren esparruan Nouvelle Aquitainerekin egindako bileraren balantzea gauzatu zen. Bileraren mugarri nagusiak eta hartutako erabakiak gogorarazi ziren. Era berean, hirugarren sektore sozialari eta gizarte-zerbitzuei buruzko lehenengo jardunaldia abenduan Bilbon antolatuzko urratsak definitu ziren.

Jarraian, urriaren 5ean STAren Orientazio Batzordean landu beharreko gai nagusiak eztabaidatu zituzten. Batzordea ados ageri zen ekintza plan atlantikoaren tartean ikuskatzeko Europar Batzordearen dokumentuari buruzko iritzi-agiriaren proiektuarekin. Nolanahi ere, STAren Osoko Bilkurak baliozkotu beharko du. STAn aztertze gai berriei dagokienez, batzordekideak korridore atlantikoaren gaia lantzearen aldekoak ziren, ikuspegiak honakoak ukitzen bazituen: egikaritze-lanak, garraio intermodalaren eta, bereziki, itsas garraioaren aukerak aprobetxatzea, itsas autopistak egituratzea eta Brexitak ardatz atlantikoko garraio-komunikazioetan sortuko dituen aukerak eta aldaketak aztertu eta aprobetxatzea.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Europar
Gaietarako
Batzordeak
2018. urtean 8
bilera egin ditu.
Bi Nouvelle
Aquitaineko
CESER
erakundearekin
baterako
saioan.

Azaroak 8

Lehenik eta behin, bileran Nouvelle Aquitaineko CESER erakundearekin alde biko kooperazioaren esparruan hirugarren sektore eta gizarte-zerbitzuei buruz abenduaren 14an Euskadiko EGABk egin behar zuen jardunaldia prestatu zen. Batzordekideei Eusko Jaurlaritzako eta Sareen Sarea erakundeko ordezkariekin izandako bileraren berri eman zitzaien. Helburua jardunaldian parte hartzea zen. Gainera, jardunaldiaren lehenengo egitaraua aztertu eta erabaki zen, hirugarren sektore sozialaren euskal ereduari eta gizarte-zerbitzuen eremuan bere inplikazioari buruzko azalpen-agiriarekin batera. Landu beharreko gaia Akitaniak hobe ulertzea lortu nahi zen.

Bestalde, batzordekideei urriaren 5ean STAren Orientazio Batzordeak egindako bileraren emaitzak jakinarazi zitzaizkien eta arreta berezia jarri zitzaion ekintza plan atlantikoa tartean ikuskatzeko Europar Batzordearen agiriaren inguruan iritzi-dokumentua onartzeari. Izan ere, saioan bertan Europar Batzordeko arduradunari aurkeztu zitzaion. Azkenik, korridore atlantikoaren gaia hautatu zen lantzeko.

Abenduak 14

Nouvelle Aquitaineko CESER erakundearekin egindako bileran “hirugarren sektore soziala eta gizarte zerbitzuak Euskadin” izenburupean jardunaldia garatu zen eta Nouvelle Aquitaineko CESER erakundeko ordezkariari, baita eskualde horretan sektoreko eragileei ere euskal eredia aurkeztu zitzaien.

Solaskideak honakoak izan ziren: Gizarte Politiketako sailburuordea, Lide Amilibia, eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria, Emilio Sola, hurrenez hurren, Euskadiko hirugarren sektore sozialari buruzko 6/2016 Legea eta gizarte-zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea aurkezteko; Sarean Sarea erakundeko burua, buruordea eta koordinatzailea, Pablo González, Iñigo Vidaurrazaga eta Mikel Barturen. Horiek Euskadiko hirugarren sektore soziala, euskal administrazio publikoen eta hirugarren sektore sozialaren arteko elkarrizketa zibilaren eredia eta hori sustatzeko estrategia aurkeztu zituzten.

Halaber, Euskadin pobrezia eta gizarteak baztertzearen aurkako borrokarako Europar Sareak eta desgaitasuna duten pertsonak gizartean eta lan-merkatuan sar daitezen sustatzeko irabazi-asmorik gabeko erakundeen elkarteak esku hartu zuten Marta Senz eta Pablo Moratallaren eskutik. Diru-sarrerak bermatzeko eredia eta Euskadin gizarteratzea landu zituzten, ekonomia sozial eta solidarioaren panoramika azaltzeaz gain.

Galderen eta iruzkinen txandak oso biziak izan ziren eta Frantzian nahiz Espainian dauden lurralde-eredu desberdinen eragina azpimarratu zen.



Europar
Gaietarako
Batzordeak
2018. urtean 8
bilera egin ditu.
Bi Nouvelle
Aquitaineko
CESER
erakundearekin
baterako saioan.

Abenduak 20

Batzordekideek oso positiboki balioztatu zuten hirugarren sektore sozialari eta gizarte zerbitzuen sistemari buruzko abenduaren 14ko jardunaldia eta, batik bat, aurkeztutako txostenen interesa eta Akitaniako partaideek solasaldian egindako esku-hartzeen kalitatea azpimarratu ziren.

Gai berdinarekin otsailean Nouvelle Aquitaineko CESER erakundeak antolatuko duen jardunaldiari begira, erabaki desberdinak hartu ziren. Era berean, “prestakuntzari lotuta, mugaz haraindiko mugikortasunaren aukerak eta oztopoak” gaia kokatzeko Akitaniaren proposamena landu zen.

Garraioaren korridore atlantikoari buruz STAren esparruan hasi behar diren lanei dagokienez, ikuspegi-esparru orokorraren berri eman zen, STAren Batzorde Betearazlean erabaki ostean. Garraioaren Europaz gaundiko sareen politika eta garraio-korridoreen mapak bideratzen dituen 1315/2013 Araudia berraztertze proposamenak egingo dira.

Halaber, Europar Gaietarako Batzordeak bere ordezkarien bitartez Sare Transnazional Atlantikoaren lantaldearen lanetan parte hartzen du eta taldeak Bordelen 2018ko ekainaren 8an egindako bileran egon da.



JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

EKIMEN PROPIOKO AZTERLANAREN BATZORDEA: “EAEko gazteriaren enplegarritasuna eta lan-merkatuan sartzea Europako eskualdeen arteko ikuspegi konparatuaren arabera”

Ekimen Propioko
Azterlanaren
Batzordea 2018.
urtean bitan
bildu zen.

Urtarrilak 10

2017ko abenduaren 21eko bileran hurrengo bilera 2018ko urtarrilaren 10ean egitea erabaki zen, gogoeta eta gomendio guztiak landu eta ixteko eta, horrekin, bide batez, azterlan osoa.

Gogoeten eta gomendioen azken bertsioa eta ekimen propioko azterlan guztia telematikoki onartu ziren aho batez 2018ko urtarrilaren 15ean.

Otsailak 14

Bileran batzordeburuak azterlanaren hurrengo mugarren berri eman zuen. Zehatz-mehatz esanda, jakinarazi zizkien Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari eta Enplegu sailburuordeari noiz aurkeztuko zaien (otsailak 27), azterlana jendaurrean noiz aurkeztuko den (martxoak 16: gosaria 9:00etatik 11:00etara) eta prentsaurrekoa noiz egingo den (martxoak 16, 12:00etan).

Jendaurreko aurkezpenaren eskemak ondorengo inguruan ardaztu behar zuen:

1. Erakunde-aurkezpena
2. Azterlanaren aurkezpena
3. Mahai-ingurua, bi solaskideren partaidetzarekin. Moderatzailearen lanetan lan-batzordeburuak jardungo du.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarekin bileran parte hartuko duten pertsonak erabakitzea.

Aurkezpenak (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, jendeari eta prentsari) eztabaidatu eta onartzea.

BATZORDE EGUTEGIA

urtarrila

lun	mar	mié	jue	vie
	2	3	4	5
8	9	S.G.B.*	11	E.G.B.
OSOKO	16	17	18	19
22	23	24	25	26
29	30	31		

apirila

lun	mar	mié	jue	vie
2	3	4	5	6
S.G.B.	10	MSE B.	12	OSOKO
16	17	B.I.	19	20
23	24	25	E.G.B.	MSE B.
30				

uztaila

lun	mar	mié	jue	vie
2	3	4	OSOKO	6
9	10	11	S.G.B.	13
16	17	18	S.G.B.	20
23	24	25	OSOKO*	27
30				

azaroa

lun	mar	mié	jue	vie
			1	2
5	6	7	E.G.B.	9
S.G.B.	13	MSE B.	OSOKO	16
19	20	B.I.	22	23
26	27	28	29	30

otsaila

lun	mar	mié	jue	vie
			1	2
5	6	7	E.G.B.	B.I.
12	13	E.P.B.	15	OSOKO*
19	20	21	22	23
26	27	28		

maiatza

lun	mar	mié	jue	vie
	1	2	3	4
7	8	OSOKO	10	11
14	15	16	MSE B.	18
21	22	23	24	MSE B.
28	29	30	31	

iraila

lun	mar	mié	jue	vie
3	4	5	6	7
10	11	12	13	14
17	18	E.G.B.	20	21
24	25	26	27	E.G.B.

abendua

lun	mar	mié	jue	vie
3	4	5	6	7
B.I.	11	12	13	E.G.B.
17	18	S.G.B.*	E.G.B.	21
24	25	26	27	28
31				

martxoa

lun	mar	mié	jue	vie
			1	S.G.B.
5	6	7	8	OSOKO*
E.G.B.	13	14	15	16
OSOKO	20	S.G.B.	22	23
26	27	OSOKO	29	30

ekaina

lun	mar	mié	jue	vie
				1
4	5	E.G.B.	7	MSE B.
11	12	13	14	15
18	S.G.B.	B.I.*	21	22
25	26	S.G.B.	28	OSOKO

urria

lun	mar	mié	jue	vie
1	2	3	4	5
8	9	10	11	12
15	16	17	18	19
22	23	24	25	26
29	30	31		

OSOKO BILKURA	12
B. IRAUNKORRA	5
Sozial G.B.	10
Ekonomi G.B.	3
MSE B.	9
Ekimen Propioko B.	2
Europar G.B.	8

* Bilera bat baino gehiago ospatzen dute lan-organoen bilerak puntuan xehatuta HOR.– 32-42

2017ko EAEko Memoria Sozioekonomikoa jendaurrean aurkeztea:
HITZALDIA: "Gobernamendu iraunkorra"

Uztailaren 10ean, 2017ko EAEko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu behar zela-eta, Euskadiko EGABk ekitaldia antolatu zuen. Jon Barrutia Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko buruak hori aurkezteaz gain, Daniel Innerarity filosofoaren hitzaldia egin zen eta "governamendu iraunkorra" izan zuen hizpide.

Daniel Innerarity filosofia politiko eta sozialean katedraduna, Euskal Herriko Unibertsitateko "Ikebasquen" ikerlaria eta Gobernamentu Institututuko zuzendaria da, baita Florentziako Europar Institutuan irakasle gonbidatua ere. Europar unibertsitate desberdinetan (hala nola, Municheko Unibertsitatean, Sorbonako Unibertsitatean, London School of Economicsen eta Georgetowngo Unibertsitatean) irakasle gonbidatu modura jardun du.

Besteak beste, ondorengo sariak jaso ditu: Miguel de Unamuno Entsegu Saria, Bilboko Udalak emana; Euskadiko Entsegu Saria, Entseguaren Nazioko Saria eta Kulturako Vianako Printzea Saria. Ohiz iritzi-kolaboratzailea da Diario Vascon. Azkeneko liburuen artean hurrengoak azpimarra daitezke: (Paidós, 2013), (Galaxia Gutenberg, 2015); (Galaxia Gutenberg, 2017) Duela gutxi Política idatzi du (Galaxia Gutenberg, 2018).



Gonbidapena / Invitación

EADEko Memoria Sozioekonomikoaren Aurkezpena EGABko egitaldia
10 de Julio 2018 Uztailiak 10
 Presentación de la Memoria Socioeconómica de la CAPV en la sede del CES Vasco

AURKEZPENA 12:00 PRESENTACION

Fco. José Navarro Burgos
 EGABko Presidentea / Presidente del CES Vasco

Jon Barrutia Guanaga
 Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko Presidentea
 Presidente de la Comisión de la Memoria Socioeconómica

HITZALDIA
"Gobernanza jasangarria"
"La gobernanza sostenible"
CONFERENCIA

Daniel Innerarity
 Filosofia Politikoa eta Sozialeko Katedraduna, EHUko "Ikebasquen" Ikerlaria eta Gobernamentu Institututuko zuzendaria
 Catedrático de Filosofía Política y Social, Investigador "Ikerlaria" en la UPV/EHU y Director del Instituto de Gobernanza Democrática (IGobernanza)

Gran Vía 81 - 7 48011 Bilbao 94 479 21 50
 Sarrera irekia, izotza eragaitasun, Mendiak, balaitatu eterrako sarrera
 Entrada libre, aforo limitado, Confirmar asistencia

Bere hitzaldian Innerarityk ohartarazitakoaren arabera, gure gizartea ez da etorkizuneko gaiak lantzeko gai, perspektibaren bat beharrezkoa bada. Horregatik, aldaketak ezinbestekoak dira, bai banaka, bai taldean, etorkizuneko interesak babesteari begira, denbora-perspektiba zabalarekin erabakiak hartzeko.

Gobernamenduaren eremu zehatzean, demokraziak etorkizuneko beharren kudeaketa eraginkorra eskatzen du eta, xede horrez, koherentzia estrategikoa hobetzea nahitaezkoa da. Mandatariei, ordea, epe laburrak presionatzen die, hauteskundeetan garaipena ziurtatzeko. Hortaz, erabakiak hartzen direnean ez dute loturarik ziklo ekonomikoekin eta desoreka dator. Ildo horri eutsiz, "konponketaren mundutik" "aurreratzearen mundura" pasa behar da. Horretarako, azkar ikasteko eta gaitasun estrategikoa izateko sistemak ezarri behar dira, are gehiago, krisia aldagai etengabea izango den etorkizunari aurre egin behar diogunean. Nolanahi ere, erantzutea oso garrantzitsua izango da.

Laburbilduz, Innerarityk "aurreratzearen governamendu iraunkorra" defendatu zuen, epe laburrera begiratzearen eta egungo miopia politikoaren aldean, aurreikuspen-tresnak hobetzeko.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Txostena aurkezteko jardunaldia:
"Estrategia Atlantikoari buruzko Txostena aurkeztu eta ikuskapen-prozesua eztabaidatzeko
jardunaldia"

Informe
2017

Otsailaren 22an Euskadiko EGABk Estrategia Atlantikoaren arrakasta-baldintzei buruzko txostenaren ondorioak eta proposamenak aurkezteko ekitaldia antolatu zuen. Europar Batzordeari entregatzeko egin zen. Denboraldiaren erdian bere aplikazioa ebaluatu eta ikuskatzeko prozesuan ekarpena izatea zuen helburu.



Ekitaldian Francisco José Huidobro Euskadiko EGABko batzordeburuaren zuzendaritzapean, EGABren Europako Gaietarako Batzordeko buruak eta idazkari teknikoak, Felisa Piedra eta Arantza Lopez de Munainek, aurkeztu zuten txostena.

Euskadiko itsas ekonomiako sektore desberdinekin harremana duten euskal eragileei gonbidatu zitzairen, Euskadin Estrategia Atlantikoaren Koordinazio Taldean parte hartzen badute. Hurrengo erakundeek ere ordezkari izan zuten: Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Arloak, Euskadin Estrategia bultzatzearen arduradunak, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Arrantza Sailek, Euskadin egiturazko eta inbertsioko europar funtsen kudeatzaileek, finantzaketan parte

hartzen baitute.

- Jardunaldiak eztabaida-gune bizia sustatu zuen hurrengoengoen inguruan:
- - Estrategia Atlantikoan hobetu beharreko alderdiak
- - eta arlo horretan euskal eragileen kezka Estrategia Atlantikoaren europar gobernamentuan Estatuko ordezkariantz bideratzea.

Ekitaldian Fernando de la Peña, Espainiako Kanpo Gaietarako Ministeriokoa, izan zen, Europar Batasunaren taldean Atlantic Strategyren lehendakaritza txandakatuan ordezkaria den neurrian. Europar Batzordeko DG MAREk gauzatutako ebaluazioan antzeman ziren ahuleziak hobetzeko, entzuleei Estrategia Atlantikoari buruzko Ekintza Planaren ikuskapen-prozesua azaldu zien.

Halaber, txostena jendaurrean aurkeztu da La Rochelleko Unibertsitatean, 2018ko ekainaren 21ean, eta Portugalgo Business 2 Sea/Forum do Mar Biltzarrean, Porton, 2018ko azaroaren 15ean.

Halaber, txostena jendaurrean aurkeztu da La Rochelleko Unibertsitatean, 2018ko ekainaren 21ean, eta Portugalgo Business 2 Sea/Forum do Mar Biltzarrean, Porton, 2018ko azaroaren 15ean.

Urtarrilak 18

EGABen topaketa

Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako buruen topaketa Espainiako EGABren egoitzan. Bileran, batetik, 2018. urterako ekintza plana zehaztu zen eta, bestetik, erkidegoetako EGABen eta Espainiako EGABn hurrengo urteko topaketarako antolaketa eta edukiei buruz eztabaidatu zen. Balear Uharteetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak antolatu zuen.

Urtarrilak 25

Euskadiko EGAB eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzako idazkariaren arteko bilera

Euskadiko EGAB, Marian Elorza Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzako idazkari eta Mikel Antón Europar Gaietarako zuzendariaren arteko bilera. Lehendakaritzara joan zen EGABren ordezkaritza: Francisco José Huidobro burua, Arantza López de Munain EGABn Europar Gaietako arduraduna, Pablo Martín CONFEBASkeko batzordekidea, Felisa Piedra CCOOko batzordekidea eta Europar Gaietarako Batzordeko burua eta Jon Barrutia adituen taldeko batzordekidea.

Nazioarteko gaiei aurre egin zizkieten, hala nola, 2017an ekonomia- eta gizarte-eragileen Sare Transnazional Atlantikoak egindako txostenari eta ekintza-plana tartean ikuskatzeari begira Estrategia Atlantikoa hobe inplementatzeko gizarte zibilaren proposamenei. Gainera, Euskadin eta Nouvelle Aquitainen fabrikazio aurreratuaren arloan berrikuntza eta teknologia transferitzeari dagokionez, Euskadiko EGABren eta NOUVELLE AQUITAINEKO CESER erakundearen arteko alde bien kooperazioa izan zuten aztergai. Nolanahi ere, lankidetzaren barruan sartzen dira jardun onak eta bi eskualdeen arteko kooperazio-proposamenak.



Urtarrilak 31

Lanbideren modernizazio- eta hobekuntza-proiektuak

EGABk Marcos Muro Enplegu sailburuorde eta Borja Belandia Lanbideko zuzendariarekin bilera izan zuen eta Lanbideren modernizazio- eta hobekuntza-proiektuaren xehetasunak aztertu zituzten.



Otsailak 5

"EUROPA FORUMA. Euskadi Tribuna" Pedro Azpiazu

Euskadiko EGABren burua "EUROPA FORUMA. Euskadi Tribuna" informazio-gosarira joan zen. Pedro Azpiazu Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia sailburuak esku hartu zuen eta aurkezlearen lanean Aitor Esteban Bravo Diputatuen Kongresuan Euskadiko Parlamentuko taldearen bozeramailea (EAJ-PNV) aritu zen.



JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Otsailak 27

Ekimen propioko azterlana Eusko Jaurlaritzari aurkeztea

Euskadiko EGABren “EAEko gazteriaren enplegarritasuna eta lan-merkatuan sartzea Europako eskualdeen arteko ikuspegi konparatuaren arabera” ekimen propioko azterlanetarako lan-batzordeko kideek Eusko Jaurlaritzari ondorioak aurkeztu zizkioten.

Topaketara hurrengoak hurbildu ziren: EGABko burua, Francisco José Huidobro Burgos; batzordeburua, Jon Barrutia; Ikerketa eta Proiektuen arduradun teknikoa, Leire Ozerin; Oskar Arenas CCOO sindikatukoa; Jesús García del Cos UGTkoa; Virginia Múgica eta Pablo Martín, CONFEBASKen izenean; Pedro

Martínez de Alegría, aurrezki kutxen eta finantza erakundeen izenean; Mikel Ruiz, Hirugarren Sektoreren ordezkaria eta Pedro Ustarroz aditua. Gobernuko ordezkariaren buru Beatriz Artolazabal Enplegu sailburua izanik, bertan egon ziren Marcos Muro Enplegu sailburuordea, Amaia Arteaga Gaztedi sailburuordea eta Ander Añibarro Gaztedi zuzendaria.



Apirilak 13

“Eredu ekonomiko iraunkor berriak: Euskadirako aukera” jardunaldi irekia.

Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak “eredu ekonomiko iraunkor berriak” SC/048 miaketa-irizpena onartu zuen eta hainbat gomendio zituen Europan gero eta handiagoak diren ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-erronkei aurre egiteko. Gai horien garrantzia kontuan hartuta, Euskadiko EGABk irizpena aurkeztu eta, gero, eztabaida sustatu zuen jardunaldi irekian erakundearen egoitzan 2018ko apirilaren 13an.

Ondorengoek parte hartu zuten: Gonzalo

Lobo Xavier, Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen lehendakariordeak; Francisco José Huidobro, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen burua; Carlos Trias Pintó, beste batekin batera eredu ekonomiko iraunkor berriak SC/048 Irizpenaren txostengilea; Izaskun Bilbao, europarlamentaria, Eusko Legebiltzarreko lehendakari ohia; eta Diego Isabel La Moneta, Ekonomia Berri eta Gizarte Berrikuntza NESI eztabaida-gunearen zuzendaria. Era berean, pertsona adituen mahai-ingurua antolatu zen eta “Euskal Autonomia Erkidegorako eredu ekonomiko iraunkor berrien aukerak” aztertu ziren”.

Partaideak: Ivan del Caz, Bikonsulting; Nerea Melgosa, Gasteizko Udalean Enplegu eta Garapen Ekonomiko Iraunkorreko zinegotzia; Elisabet Urbieto, REDELEko (Tokiko Garapenerako Erakundearen Espainiako Sarea) idazkari teknikoa eta Garapeneko kudeatzailea; Guillermo Dorransoro, Deusto Business Schooleko dekanoa



eta IK4 (Euskal Herriko Teknologia Zentroen Aliantza) lehendakariorde exekutiboa; Kristina Apiñaniz, Aclimako zuzendari nagusia; Javier Doz, Europako EGABko batzordekidea, langileen taldea.



Apirilak
26 eta 27

Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen urteko topaketa

Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen urteko topaketa 2018. urtean Palma Mallorcakoan egin zen. 26an harrera eta ongietorriaren nahiz Balear Uharteetako Parlamentuan topaketaren hasiera ofizialaren erakunde-ekitaldiak egin ziren eta Erkidegoko Govern izenekoaren lehendakariak parte hartu zuen, beste agintari batzuekin batera. Egun horretan bertan “Balear Uharteak 2030. urteari begira” azterlanaren aurrerapena aurkeztu zen, erkidegoko gobernuak eskualdeko EGABri egitea eskatu ostean. Ostiraleko, apirilaren 27ko, saioa erkidegoetako EGABen barneko lan-bilerak bete zuen.



Maiatzak 16

Cebeken Batzar Nagusia

EGABko burua, Francisco José Huidobro, CEBEken Batzar Nagusian parte hartu zuen, baita enpresa-topaketan ere. Horretan, Ignacio Marco Gardoqui (Vocento taldeko ekonomia-iruzkingilea moderatzailea izanik, Emiliano López Atxurak (Petronorreko lehendakari exekutiboa), Cristina Garmendiak (Coteceko lehendakaria) eta Gorka Díezek (Bridgestone Manufacturing Excellenceko zuzendaria) hurrengo gaiaren inguruan eztabaidatu zuten: “hurrengo urteetan enpresa-aukerak eta -erronkak”. Eztabaidaren ostean, ohiko bazkari-elkarrizketa izan zen eta enpresa, finantza eta ekonomiako ordezkariak parte hartu zuten, euskal erakunde politikoetako ordezkari gorenekin batera.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Maiatzak 17

Erkideren, Lan Elkaturako Kooperatiben Federazioaren, Batzar Nagusia

EGABko burua, Francisco José Huidobro, Gasteizen Erkideren Batzar Nagusira joan zen. Federico Steinbergen hitzaldia antolatu zuen "egungo ekonomia-egoeraren analisia eta etorkizunerako aurreikuspenak" izenburupean.

Maiatzak 30

Adegi enpresaren eguna

Francisco José Huidobro, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko burua, 2018ko Enpresaren Eguna ekitaldian izan zen, Donostian Adegik antolatu ostean. "Enpresa-zuzendari nagusi bezala lidergoan" izenburupean, jardunaldian, Juanjo Mena, BBC Philharmonicen zuzendariak, eta Andrés Arizkorretak, CAFeko buruak, parte hartu zuten.



Ekainak 8

"EUROPA FORUMA. Euskadi Tribuna" Loli García

Emilia Málaga Pérez, Euskadiko EGABren idazkari nagusia, "EUROPA FORUMA. Euskadi tribuna" informazio-gosarian egon zen. Loli García, CC.OO – Euskadiko idazkari nagusiak, esku hartu eta Unai Sordok, CCOOko idazkari nagusiak, aurkeztu zuen.



Ekainak 29

Harrera

EUSKAL CES-ak lagundu zion Akitania-Euskadi-Nafarroa Berriari Euroeskualdearen lehendakaritza nafarragatik eskainitako harrerarako gonbidatu bezala. Nafarroak Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualde Berriaren lehendakaritza onartu zuen egun horretan, 2020ra arte.

Txanda gertatu zen Iruña, hiru eskualdeetako lehendakariak buru izandako ohi ez bezalako batzarrean zehar: Akitania Berriko, Alain Rousset; Euskadiko, eta Uxue Barkos-eko, Nafarroaren aldetik, Iñigo Urkullu.

Topaketan zehar, kargua uzten duen lehendakaria, Alain Rousset-ek zeharkatu zuen lehendakariarentzako lehendakaritzaren Barkos, Nafarroako Artxibo Erreal eta Orokorreko klaustroan gertatu zen hotsandiko ekitaldian, sinbolo den "makila".



Uztailak 3



Memoria Sozioekonomikoa Lehendakariari, Iñigo Urkulluri, aurkeztea

Euskadiko EGABren Memoria Sozioekonomikoari buruzko edukiak aurkeztu eta ofizialki Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari, Iñigo Urkulluri, entregatzeko ekitaldia.

Francisco José Huidobro batzordeburuari EGABko idazkari nagusiak, Emilia Málaga; MSE egiteko batzordeburuak, Jon Barrutiak; Azterketa eta Proiektuen arduradunak, Arantza Unzurrunzagak; eta Raúl Arza, Oscar Arenas, Pablo Martín, Pedro Martínez de Alegría eta Pedro Luis Ustarroz batzordekideek lagundu zioten.

Uztailak 6

Memoria Sozioekonomikoa Legebiltzarreko buruari aurkeztea

Euskadiko EGABren Memoria Sozioekonomikoari dagozkion edukiak aurkeztu eta ofizialki Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko buruari entregatzeko ekitaldia.

Francisco José Huidobro batzordeburuari EGABko idazkari nagusiak, Emilia Málaga; MSE egiteko batzordeburuak, Jon Barrutiak; Azterketa eta Proiektuen arduradunak, Arantza Unzurrunzagak; eta Maribel Ballesteros, Aitor Otaola eta Goio Martín batzordekideek lagundu zioten.



Irailak 19

Deustuko Unibertsitateko ikasturtea irekitzea

EGABko buruak Deustuko Unibertsitateko Paraninfoan ikasturtea ofizialki irekitzeko ekitaldian parte hartu zuen.

Irailak 21

Ganberaren ostiralak

Euskadiko EGABko burua “babesten duen Europa. EBren Kontseiluan Austriako Burutzaren lehentasunak” hitzaldian izan zen eta solaskide modura Christian Ebner, Austriako enbaxadorea, aritu zen.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irailak 24

Lan Harremanetarako Kontseiluaren jardunaldia: "lan-harremanen gobernamentua: hiru edo bi aldeen ikuspegia"

Euskadiko EGABren kideek Bilbon antolatutako jardunaldian parte hartu zuten. Tomás Arrieta Herasek, Lan Harremanetarako Kontseiluaren burua, eta María Jesús San Josék, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia sailburua, aurkeztu zuten.

Lan-harremanen gobernamentua izan zen hizpide eta hiru aldeen arteko elkarrizketa-egitura eta -eskemak aipatu zituzten, gizarte-eragileen bi aldeen arteko elkarrizketan sakondu eta hori indartzearekin batera. Xede horrez, negoziazio kolektibo eta lan-gatazka konpontzeko prozedura autonomoetara jo behar da.



Urriak 2

Brexitari buruzko dibulgazio-jardunaldia

"Brexit eta herritarren eskubideak" izan zen jardunaldiaren izenburua eta Euskadiko EGABko burua parte hartu zuen. Tim Hemmings, Madrilen Britainiako Enbaxadako ministro kontseilaria; Jochen Müller, Espainian Europar Batasuneko Ordezkaritzarako Sail Politikoko burua; eta Mikel Antón, Eusko Jaurlaritzan Europar Gaietarako zuzendaria; izan ziren solaskide, Brexitaren eraginak argitzeko xedez.



Urriak 3

"EUROPA FORUMA. Euskadi Tribuna" Iñigo Urkullu, Lehendakaria

Euskadiko EGABko burua, "EUROPA FORUMA. Euskadi Tribuna" informazio-gosarian izan zen eta Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria esku hartu zuen.

Urriak 15

Novia Salcedo Sariak

Euskadiko EGAB gazteen enplegarritasuna hobetzeko Novia Salcedo Sari VIII. ediziora joan zen Bilboko Arriaga antzokira.

Urriak 27

Eusko Legebiltzarrean agerraldia

Eusko Legebiltzarreko Enplegu, Gizarte Politika eta Gaztedi Batzordearen aurreko agerraldian honakoak izan ziren: Jon Barrutia, UPV/EHUKo Ekonomia eta Enpresa fakultateko dekanoa eta Euskadiko EGABren Memoria Sozioekonomikoa idazteko batzordearen arduraduna; eta Francisco José Huidobro EGABko burua. Batzordeko legebiltzarkideek gonbidatu zituzten, urteko txosten sozioekonomikoaren xehetasunak ezagutu nahi baitzituzten. Bi orduz, enplegu, prestakuntza, berrikuntza, osasun eta hezkuntzari buruz txostenean dauden gogoetak eta datuak azaldu zituzten. Halaber, Euskadin pobrezia adierazleak eta beren estaldura izan zituzten aztergai.



Azaokak 21

EAEko aurrekontu-proiektua aurkeztea

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia sailburuak, Pedro Azpiatzuk, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuraren aurrean 2019. ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorraren lege-proiektua aurkeztu zuen.

Berarekin batera izan ziren Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu sailburuordea, Alberto Alberdi; Aurrekontuen zuzendaria, Hernando Lacalle; eta Kabinete nahiz Komunikazio zuzendaria, Yurdana Burgoa.



Abenduak 5

El Correok antolatuta, ekonomia-aukerei buruzko eztabaida-gunea

Euskadiko EGABko burua “ekonomia-aukerei buruzko eztabaida-gunea” gosarira bertaratu zen Euskalduna Jauregian. Enrique de Ybarra El Correoko buruak eta Rami Aboukhair Santander Españaiko CEOk aurkeztu zuten. Lehendakariak, Iñigo Urkullu Renteriak, esku hartu zuen. Geroko solasaldian moderatzaile lanetan José Miguel Santamaría El Correoko zuzendaria aritu zen.

Abenduak 11

Espainiako EGABren jardunaldia

Euskadiko EGABko buruak, Francisco José Huidobrok, Madrilen “lanaren etorkizunari” buruz EGABk egindako txostenaren aurkezpen-jardunaldian parte hartu zuen. Txostena munduan nahiz Europan erronken inguruan ageri diren nabaritasun eta eztabaidetan oinarritzen da. Hala, diagnostikoak eta proposamenak aurki daitezke.

Jardunaldian partaideak: Marcos Peña, Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen burua; Magdalena Valerio, Lan Migrazio eta Gizarte Segurantzza ministroa; Pedro Fernández Alén, Espainiako EGABn Lan Harreman, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Lan Batzordeko burua; Antonio Garamendi, CEOEko burua; Pepe Álvarez, UGT sindikatuko idazkari nagusia; Unai Sordo, CCOOko idazkari nagusia; eta Joaquín Nieto, Espainian OIT bulegoko zuzendaria.



Abenduak 27

Euskal gizarteko ordezkariari Lehendakariaren harrera

Euskadiko EGABk Lehendakariaren ohiko ekitaldian parte hartu zuen. Urtea amaitu baino lehen eskaintzen die Lehendakaritzaren egoitzan euskal gizarteko ordezkariari.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

EUROPAR GAIEN EREMUAN ERAKUNDE-JARDUERA

Kooperazioa Gune Atlantikoan

Sare Transnazional Atlantikoa, STA

Euskadiko EGAB Gune Atlantikoko eskualdeetan Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen eta erakunde erkideen kooperazio sareko (STA) kide da eta atlantikoari atxikita, interes erkidea duten gaiak lantzen eta aztertzen lankidetzan dihardu. Ildo horri jarraiki, gomendioak erabakitzeko gaitasuna duten erakundeei helarazten dizkie, besteak beste, europar erakundeei.

Sarearen barruan ere daude Andaluziako, Galiziako, Kanarietako, Extremadurako, Gaztela eta Leongo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, Nouvelle Aquitaine, Pays-de-la-Loire, Britainia, Normandia eta Centre-Val de Loireko Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen Arazoetarako Batzordeak, Galeseko Foro Ekonomikoak, Instituto de Soldadura e Qualidade erakundea, ISQ, *Portugalgo Oceano Foroa*. Bestalde, *Irish Sea Maritime Forumak* ere lanetan parte hartzen du.

Otsailaren 21ean Euskadiko EGABko burua, Francisco José HUIDOBRO BURGOS, hautatu zuten STAko buru bi urtez. Halaber, STAko Batzorde Betearazlearen buru da eta honako kideak izango ditu: burua, Francisco José HUIDOBRO, Euskadiko EGABko burua; Corina PORRO, Galiziako EGABko burua; Camille DE AMORIN BONNEAU, Nouvelle Aquitaineko CESER erakundearen lehendakariordea; Paul CLOUTOUR, Pays de la Loire CESER erakundeko lehendakariordea.

Maiatzak 22

STAREN Batzorde Betearazlea

STAREN Batzorde Betearazlea Parisen elkartu zen lantaldearen lanak berrantolatu eta hurrengo Orientazio Batzordea prestatzeko.

Ekintza Plan Atlantikoaren Tarteko Ikuskapen Batzordearen agiriari buruzko iritzi-dokumentua egiteko zeregin-gutunak onartu ziren eta eskualde atlantikoetan Brexitaren eragin-arloak identifikatzeko lanari buruzko erabakiak hartu ere bai. Udazkeneko Orientazio Batzorderako aztergaien zerrenda formulatu zen eta lan-gai berria hautatzea azpimarra daiteke. Halaber, STARako web orri berria kontratatzea onartu zen.



Ekainak 8

SATREN lantaldea

Lantaldea Bordelen bildu zen Ekintza Plan Atlantikoa tartean ikuskatzeari buruzko Europar Batzordearen dokumentua azterteko eta STAK egin beharreko iritzi-agiriaren gidalerroak adosteko.

Bileran Rafael de la Peñak, Europar Batasuneko Estrategia Atlantikoaren taldeko Espainako Burutzaren ordezkariak, parte hartu zuen eta estrategiaren ikuskapen-prozesua aurkeztu zuen, Europar Batzordearen dokumentuaren garrantzia bere testuinguruan jartzearekin batera.

Ekainak 14 - 15
Urriak
18 - 19

Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Nagusia

EGABk Arku Atlantikoko eta CRPMko Batzordearen Batzar Nagusian parte hartu zuen. Horiek Comillasen ekainaren 14 eta 15ean eta Funchalen urriaren 18 eta 19an egin ziren. 2021-2027rako urte askotako finantza-esparruaren eta programazio-esparru berrirako kohesio-politika berriaren negoziaketa, bereziki, Europako lurralde-kooperaziorako programen etorkizuna izan zen saioen ardatz nagusi. Arku Atlantikoko Batzordearen eremuan egun Europar Batzordean mugarri diren horien eraginak Estrategia Atlantikoko Ekintza Planaren ikuskapen-prozesuan eta makroeskualdearen estrategiarantz jauzia emateko egokitasunak hartu zuten protagonismo osoa.

Era berean, lantaldeen honako bileretan parte hartu da huben arabera multzokatuak:

- Irisgarritasun/Erakargarritasun huba. Otsailaren 6an eta abenduaren 13an, DG MOVEren artaidetzarekin, Europaz gaindiko garraio sareen araudia (RTE-T) eta Connecting Europe Facilityri (CEF) buruzkoa inplementazioaren erdiko tartean ikuskatu ziren.
- Itsas huba: otsailaren 7an eta abenduaren 13an bildu zen itsas energien eta itsas berrikuntzaren eremuetan ekintza zehatzei buruz eztabaidatzeko. Helburua Estrategia Atlantikoaren ekintza plan berriari proposamenak egitea zen.
- Estrategia Atlantikoaren taldea: otsailaren 7an, maiatzaren 18an, uztailaren 17an eta abenduaren 12an Estrategia Atlantikoaren ekintza planari buruzko ebaluazio- eta ikuskapen-prozesua jarraitu da. Estrategia Atlantikoa makroeskualdeko estrategia bihurtzearen aldeko eta kontrako alderdiak aztertu dira.

Ekainak 21

2014-2020rako Espazio Atlantikoaren Lurralde Kooperazioari buruzko Programa

Euskadiko EGABk 2014-2020rako Espazio Atlantikoaren Lurralde Kooperazioari buruzko Programaren Jarraipen Batzordeak egindako bileran parte hartu zuen ekainaren 21ean Belfasten. Batzordeak programarako proiektuen bigarren deialdiari buruzko datuak aztertu eta eztabaidatu zituen. Programaren Idazkaritza Teknikoak aztergai du eta 2014-2020 denboraldirako programan zain dagoen hornidura banatuko da.

Hedapen handiagoa izan zezan, Estrategia Atlantikoaren Stakeholders plataformaren bilerarekin batera, programaren urteko ekitaldiari buruzko konfigurazioaren inguruan eztabaidatu zen. Era berean, 2021-2027 denboraldirako kohesio-politika berriaren eta Brexitaren esparruan programaren etorkizuna aztertu zen.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Urriak 5

STAren Orientazio Batzordea

STAren Osoko Bilkurak, Parisen egindakoak, STAren iritzi-dokumentua baliozkotu zuen. Ekintza-plan atlantikoa tartean ikusatzeko Europar Batzordearen agiria aztertzen zuen eta ondorioak Europar Batzordean DG MAREren ordezkariari aurkeztu zizkion, Estrategia Atlantikoaz arduratzen baita. "Korridore atlantikoa" aukeratu zen lan-gai berri modura. Beraz, lanaren kideak eta lantaldearen burutza ere zehaztuak gelditu ziren.

Azkenik, sarearen beste jarduera- eta partaidetza-arlo batzuk gainera landu ziren eta aurrekontu-alderdiei eutsi zitzaizkien.



Urriak 24 -25

Atlantikoko Stakeholders plataforman parte hartzea

Euskadiko EGABk, Sare Transnazional Atlantikoko bazkideekin batera, Atlantikoko Stakeholders plataformaren bileretan parte hartu zuen urriaren 23 eta 24an Vigon. Bertan Estrategia Atlantikoaren ekintza plana hobetzeko arloei buruz ikuspegiak azaldu zituzten. Osoko Bilkuretan izan ziren eta Karmenu Vella Ingurumen eta Itsas Gaietako komisarioak, baita Estatu Atlantikoetako gobernuetako kideek ere, hitz egin zuten.

Azaroak 23

STAren Batzorde Beterazlea

STAren Batzorde Beterazlea Madrilan bildu zen eta "korridore atlantikoa" gaiari buruz burutu behar diren lanen edukia eta ikuspegiak definitzen jardun zuten, gero, lantaldeek gara ditzaten. Ekintza plan atlantikoa tartean ikusatzeari buruz Europar Batzordearen agiriaren inguruan iritzi-dokumentua komunikatzearen gaia landu zen, 2019ko lehenengo seihilekoan egingo den STAren Orientazio Batzordearen gidalerroak zehazteaz gain.

Taldeak egindako hurrengo bileretan parte hartu da: otsailak 12, Madrilan; martxoak 19, maiatzak 4, ekainak 6, uztailak 18, urriak 3, urriak 23 eta abenduak 10 Bruselan eta Vigon. Estrategia Atlantikoa jarraitu eta bultzatzeko ekimen desberdinak eztabaidatu dira.

Europar Batasunaren Atlantic Strategy Group

Atlantikoko bost estatu kideek eta europar erakundeek osatzen dute eta Estrategia Atlantikoaren ekintza-plana inplementatu eta jarraitzean bultzatzea eta zuzentzea du helburu. CESE Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eta STAren artean Estrategia Atlantikoaren arloan dagoen kooperazioaren babesean, taldearen prestakuntza teknikoan erakundearen ordezkariak Euskadiko EGABn STAren koordinatzaileak garatzen du.

IV . KAPITULUA
BITARTEKO MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK KUDEATZEA

2018KO AURREKONTU

El Presupuesto de Gastos del Consejo Económico y Social para 2018 presentó una dotación de 1.687.762,59€, cuyo importe se financió en 1.389.853€ con cargo a los Presupuestos Generales de la CAPV, 295.409,59€ con cargo a remanentes de ejercicios anteriores y 2.500,00€ con cargo a ingresos financieros.

El Presupuesto ordinario de gastos e ingresos para 2018 se desglosó en los siguientes grandes capítulos:

	AURREKONTUA	GAUZATAKOA	GRADUA
GASTUAK	1.687.762,59	1.517.020,98	89,88%
I. kapitulua.-Langileen Gastuak	727.570,26	716.759,06	98,51%
II. kapitulua.- Jardunbidearen gastuak	941.722,39	788.767,26	83,76%
VI. kapitulua.- Inbertsioak	18.469,94	11.494,66	62,23%
SARRERAK	1.687.762,59	1.517.020,98	89,88%
IV. kapitulua.- Transf. eta Diru-lag. Gastu arrunta	1.389.853	1.389.853	100,0%
Eusko Jaurlaritza	1.389.853	1.389.853	100,0%
V. kapitulua.- Ondare sarrerak	2.500	2.530,28	101,21%
Aurreko ekitaldietako gerakinak	295.409,59	124.637,7	42,19%

Aurrekontuaren likidazioko datuak 2018ko ekitaldiaren behin-behineko likidazioari dagozkio, eta argitaraturiko egunean, urteko auditoria egiteko zain daude.

JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Gastuen likidazioaren bilakaera historikoaren xehetasuna eta haren bilakaera, kapituluka :



BATZORDEAREN ZERBITZURAKO LANGILEAK

Euskadiko EGABren zerbitzura diharduten langileak, presidenteaz eta idazkari nagusiaz gain, zortzi pertsona dira eta lan-arlo desberdinetan banatuak daude:

- 3 azterketa eta proiektuen arduradun.
- 1 administrazio eta zerbitzuen arduradun.
- 1 zuzendari-idazkari.
- 3 administrari



TWITTER @CESEGAB/FACEBOOK

EGABk gizarte-sareetan parte hartzen du Twitterreko eta Facebookeko kontuetan. Horrela, Batzordearen jarduerekin zerikusia duten informazioa ematen die jarraitzaileei.

Informazio propioaz gain, intereseko ekonomia eta gizarte eragile eta erakunde talde handi batek eta Batzordea osatzen duten erakundeek gizarte sare horretan emandako informazioa bildu eta aurkezten du jendearentzat zabalik dauden zerrenden bidez.

Halaber, kontsultarako erakunde honen jardueren inguruko informazio garrantzitsua, beste batzuek emandakoa, aukeratu eta ezagutarazten du.



Ikusizko Agiritegia

Batzordeak eginiko ekitaldi eta bilera garrantzitsuenen argazki digitalen agiritegia du EGABk.



WEB horria

Web orrian Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko informazioa eskaintzen da, hain zuzen ere, bere jarduerari eta argitalpen-ekoizpenari dagokiona.

Jarduera eta Gaurkotasuna atalen bidez Batzordeak garatzen dituen jarduera desberdinei buruzko informazio eguneratua lor daiteke, hala nola irizpenak, txostenak eta azterlanak, hitzaldien antolaketa, etab. Euskadiko EGABk argitaraturiko lan guztiak dohain eskura daitezke, eta PDF formatuan deskargatzeko moduan daude Agiriari eta lanak atalean.

Aldizkari elektronikoa

Euskadiko EGABren informazio aldizkaria Batzordearen jarduera hedatzeko tresna da eta erakunde honen jarduera ahalik eta jende gehienari iritsarazteko bitarteko garrantzitsua da. Argitalpenak ekonomia eta gizarte informazio garrantzitsua eta gaurkotasunari buruzkoa du, bai abagunearen ikuspegitik, baita egituraren ikuspuntutik ere.

2018. urtean lau aldizkari egin dira.

Ekonomia eta gizarte informazio aipagarriaren artean honakoak adieraz daitezke: lan merkatuko, hezkuntzako eta gizarte babesteko adierazleak; industria ekoizpenaren indizeak eta merkataritzari, prezioei, kostuei eta produktibitateari buruzkoak; I+G+b; proiektio ekonomikoak...

Posta elektronikoz eta web orriaren bitartez hedatuko da.



JARDUEREN TXOSTENA 2018

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

ARGITALPENAK

2018 urtean zehar argitalpen hauek txertatu ditugu gure web-orrian PDF eta EBOOK formatuan:

- [Jardueren Txostena 2017](#)
- [Memoria Sozioekonomikoa 2017](#) eta [Laburpena eta Gogoetak 2017](#)
- Irizpenak:
 - [1/18 IRIZPENA](#), AMA-ESNEAREN EUSKADIKO BANKUA SORTZEN DUEN ETA NORBERAREN SEMEAK/ALABAK ERABILTZE ETA EMATE ALDERA HORI HARTU, ATERA, PROZESATU, BANATU ETA ADMINISTRATZEKO BALDINTZAK EZARTZEN DITUEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [2/18 IRIZPENA](#), EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADINEKOENTZAKO EGOITZEN FARMAZIA-ZERBITZUEI ETA SENDAGAI-BILTEGIEI BURUZKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [3/18 RIZPENA](#), EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESPARRUKO ADINEKOENTZAKO EGOITZEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [4/18 IRIZPENA](#), BEREN KARGURA SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEKRETUAREN ALDAKETA PROIEKTUARI BURUZKOA.
 - [5/18 IRIZPENA](#), ERABILERA TURISTIKORAKO ETXEBIZITZA ETA ETXEBIZITZA PARTIKULARRETAKO GELEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [6/18 IRIZPENA](#), EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAIKINEN AZTERKETA TEKNIKOA ETA AZTERKETA TEKNIKOEEN ERREGISTROA ARAUTZEN DITUEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [7/18 IRIZPENA](#), 202/2004 DEKRETUA, URRIAREN 19KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HILETA OSASUNAREN ARAUDIA ONARTZEN DUENA, ALDATZEKO PROIEKTUARI BURUZKOA.
 - [8/18 IRIZPENA](#) GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZEN DEKRETUA BIGARRENEZ ALDATZEKO PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [9/18 IRIZPENA](#) EAEN VII. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANARI BURUZKOA
 - [10/18 IRIZPENA](#), EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN FAMILIA-HARRERA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [11/18 IRIZPENA](#) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IBILGAILUEN HORNIDURARAKO ARRETARIK EZ DUTEN INSTALAZIOEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZEN INGURUKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [12/18 IRIZPENA](#) IKUSKIZUN PUBLIKOEN ETA GARAPEN JARDUEREN GARAPEN ARAUDIA ONARTZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [13/18 IRIZPENA](#), EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.
 - [14/18 IRIZPENA](#), EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGORA ADINGABE ATZERRITARRAK ALDI BATERAKO ETORTZEKO PROGRAMEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA
 - [15/18 IRIZPENA](#), EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOAREN LEGE AURREPROIEKTUARI BURUZKOA
 - [16/18 IRIZPENA](#) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN ARAUDIA ONARTZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA
- [AZTERLAN ETA TXOSTENEN BILDUMA 14.](#)- EAEko gazteriaren enplegarritasuna eta lan-merkatuan sartzea Europako eskualdeen arteko ikuspegi konparatuaren arabera.
- Aldizkari elektronikoa:
 - [18/10/2018](#) - Los CES de las regiones del espacio atlántico se reúnen/Eremu atlantikoko eskualdeetako EGABak bildu dira
 - [17/07/2018](#) - 2017: Un año de crecimiento / 2017: Hazten urtebete
 - [22/03/2018](#) - Estudio: La empleabilidad de la juventud y el acceso al mercado laboral/ Gazteriaren Enplegarritasunari eta lan merkatuan, Azterlana
 - [05/02/2018](#) - El CES Vasco debate en Bruselas el futuro de la Estrategia Atlántica/EEGAB Bruselan izango da Estrategia Atlantikoaren etorkizunaz eztabaidatzen

- 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOA, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatuari buruzkoa (EAO, 306 zk., 1979-12-22) (EHAA, 32 zk., 1980-01-12koa).
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 (EHAA, 101 zk., 2012-05-24koa).
- 2013ko urriaren 29ko 433/2013 DEKRETUA, Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordeari buruzkoa (EHAA, 209 zk., 2013-11-4koa).
- 2013ko azaroaren 22ko osoko bilkuraren ERABAKIA. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Arautegi Berria onetsi zuen (EHAA, 232 zk., 2013-12-11koa).